ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2007ko maiatzaren 21a > Astelehena > III. urtea > 146. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Patologia psikiatrikoek estigma bat dute, ezjakintasuna dela-eta"



**Iñaki Agirre**
Aita Menni ospitalea > 06

**FEDEA**
**Lourdesera eta Fatimara erromes ibarreko hainbat lagun** > 02-03

**AFRIKA**
**Afrikaren inguruko topaketak egongo dira Arantzazun** > 04

**ANTZUOLA**
**Lanak bukatzear, laster zabalduko dute Herriko plaza** > 14

**KONTZERTUA**
**Sex Museum, Gatillazo eta beste talde batzuek jo zuten Oñatin** > 26

**KIROLAK** > DENBORALDI BERRIAN, ZELAI BERRIAK

# Irailetik aurrera, futbol eta errugbi partiduak, Mojategin

**AZKENAK** Aste bukeran jokatu dituzte Atxabalpeko eta Garagartzako azkeneko futbol eta errugbi partiduak

**ATXABALPE** Mondraren eta Aloñaren arteko preferente mailako derbia izan da azkeneko lehia

**GARAGARTZA** Arrasate Errugbi taldeak Ordizia menderatu zuen Garagartzan jokatutako azken norgehiagokan > 15

**LANDA ARLOA** > SARIKETA

## Ideia berrien sariketa, bi eskualdetan

Landa guneko ideia eta proiektu berrien lehiaketa bihar aurkeztuko dute > 05

## G2a

### Artisauen postuek eta kaleko giroak Erdi Arora eroan dute Arrasate

Joan den asteburuan, IV. Arrasateko Erdi Aroko azoka egin zuten. Bertoko eta kanpotik etorritako artisauen postuek Iturriotz, Erdiko kale, Seber Altube eta Herriko plaza hartu zituzten. Kaleko giroa alaitzeko, gaita eta danborrek orduko musika jo zuten. Aurreko urteetan baino postu gutxiago egon dira aurten: guztira, 90 bat. Eguraldiak ere ez du askorik lagundu, tarteka euria egindu-eta. Baina, orokorrean, giro alaia egon da Arrasateko kale nagusietan. > 23




**MALABARISTAK** Kale giroa alaitzeko, musika eta antzerkia egon ziren; irudian, malabaristak.
JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**OSASUNA** > PEDIATRIA

## Oñatiko pediatra titularra ekainean hasiko da lanean

Atzerapenik ez bada, ekainean amaituko da azken hilabeteetan Oñatiko gurasoek bizi izan duten egoneza. Izan ere, datorren hilean, Ana Rio, Oñatiko Osasun Zentroko pediatra titularra, lanera itzuliko da.

Horixe da Osakidetzako arduradunek Lourdes Idoiaga alkateari bidalitako eskutitzean jasotzen dena. Gutun hori, herrian zegoen kezka adieraziz, Udalaren izenean bidalitakoaren erantzuna da.

Halaber, Osakidetzako arduradunek Lourdes Idoiaga alkateari bidali zioten gutunean, Ana Rio pediatrari euskara ikasten jarraitzeko baimena ez diotela berrituko gaineratzen dute. > 12

**EUSKARA** > ARETXABALETA

## Euskararen Eguna ospatu dute

Parte-hartze handia izan zuen joan den zapatuan Aretxabaletan Euskararen Egunak, Loramendi elkarteak antolatuta; hala, bazkarian, 130 lagun batu ziren. Antolatzaileak pozik daude herriaren erantzunarekin. > 09

## Barruan, Aloña Mendi kirol elkartearen txirrindularitza posterra





ASTE BUKAERAN Lourdesera erromes joateko autobusa hartu zuten egubakoitzean, Oñatin, hainbat gaixok eta boluntariok; gaur, astelehena, bueltatuko dira. MIREIA BIKUÑA

**ERLIJIOA** > LOURDES ETA FATIMARA ERROMESALDIAK

# Fedea eta elkartasuna lagun hartuta, otoitzaren bidean erromes

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Mirariak, ezta Lourdesen ere, entzun izan dugu maiz. Mirarien bila ez dakigu, baina, fedea lagun, Lourdeserako bidea hartu zuten egubakoitzean hainbat erromes debagoiendarrek. Gauzak ondo direla, gaur, astelehena izango dira bueltan.

Lourdesko Ospitalitateak antolatuta, erromesaldia izaten da urtero Frantziako santutegira, joan den 54 urtean. Aurten, *Bakearen bila erromes* lelopean, Gipuzkoatik 300 gaixo eta ezindu eta 600 boluntario joan dira asteburuan Frantziara, Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzaina buru dutela. Beste batzuek euren kabuz egiten dute Lourdesera bisita, eta zapatuan, Gipuzkoaren egunean, guztiek bat egin zuten, otoitza eta elkartasuna uztartuz.

Lourdesera abiatu aurretik, Jon Molina Arrasateko apaizarekin izan ginen, erromesaldiaren nondik norakoak jakin nahian. Gure ibarretik autobus batean joaten dira, Lourdesko Ospitalitatearen bitartez. "Donostiako Lourdesko Ospitalitateak 300 gaixo eta ezindu eramaten ditu Lourdesera. Boluntariook joaten gara laguntzera, bidaia ahalik eta erosoen egin dezaten", esan digu Jon Molinak.

**ELKARTU ETA ESKERRAK EMAN**

Ekintza erlijiosoak izaten dira nagusi Lourdesen, baina txango txikiren bat, kontzerturen bat, ere izaten dela jakinarazi digu Molina apaizak: "Gaixoendako izaten da etxetik ateratzeko modu bat eta, era berean, beste batzuekin elkartzeko eta egun batzuk pasatzeko aukera izaten dute".

Askok uste du Lourdesera mirari bila edo eskean joaten direla erromesak, baina, Jon Molinaren esanetan, "jendeak ez du ezer berezirik eskatzen, nahiz eta horren inguruan mila mito egon". Apaiz honek argitu digu: "Gaixoendako, eurak elkartzeko gune bat da. Batzuek urte askoan joan dira, eta Lourdesko hitzordua lagunak ikusteko aitzakia ere bada, neurri batean. Eskatzera, ez dakit inor joaten den; gehiago izaten da eskerrak emateko gunea. Besteak beste, bizirik jarraitzen dutelako ematen diote eskerrak Ama Birjinari".

**Gipuzkoako 300 gaixo eta ezindu eta 600 boluntario Lourdesen izan dira oraingo aste bukaeran**

**Debagoieneko hainbat fededun asteon joango dira Fatimara, otoitz egitera**

Bestalde, Molinaren ustez, "aurtengo leloa *Bakearen bila erromes* den arren, hori ez da mezurik garrantzitsuena Lourdesen. Badira urtean barrena beste momentu batzuk bakea bezalako gai bati buruz hitz egiteko".

Lourdesera gaixoak zergatik joaten diren galdetuta, hau esan digu: "Hasieratik, gaixoak hara joaten hasi ziren eta, gainera, beti egin izan zaie harrera ona".

**UR MIRAGARRIA**

Lourdesko santutegia ezaguna da, besteak beste, gaixoengatik eta mirariengatik. Eliza Katolikoak ofizialki ia 70 mirari eta 7.000 sendaketa inguru aitortu ditu Ama Birjina han agertu zenetik.

Lourdesera, bertako urarengatik ere joaten da jendea, hau baita sendagai onena, askoren ustez. Uraren azterketa kimikoa egin ostean, erabat purua dela ondorioztatu zuten: ez duela propietate termikorik, eta erabat naturala dela. Gainera, ez dela inolako bakteriorik bizi Lourdesko uretan.

Lourdesera joaten den gaixo askoren nahia da ur miragarridun harrizko putzuetan bainua hartzea. Izan ere, sendatuko diren esperantza eramaten dute bidaian eurekin. Basilikaren azpiko aldean daude putzu horiek, eta txandan-txandan sartzen dira urtean, Ama Birjinak emandako jarraibideei kasu eginez eta otoitza lagun dutela.

Paski Madrid oñatiarra 26 urtean joan da Lourdesera, eta putzuetan gaixoei laguntzen jardun izan du ia hasieratik. "Gelatxo batzuetan sartzen ditugu, eta biluzten laguntzen diegu. Ondoren, kapa batzuk ipini eta hiru lagunek putzuetara eramaten ditugu banan-banan. Ura belaunetaraino iristen zaie, baina guk mugitzen ditugu, gorputz guztia busti artean, uretan sartzeko".

Lan gogorra da putzuetakoa: "Ura oso hotza egoten da, harkaitzetatik baitator. Beraz, gorputza tinko jartzen dute gaixoek, eta mugitzea zaila izaten da. Askotariko jendea eta gaitzak ikusten ditugu, eta hori gogorra da oso".

Paski bera ere sartzen da Lourdesko uretan: "Etxean arazoren bat izan dudanean-edo sartu izan naiz. Miraririk handiena iruditzen zait hainbeste jende gaixo ur berean sartzea eta inolako gaitzik ez zabaltzea. Atzerritarrek badirudi fede eta debozio handiagoa dutela. Gurean, fede txikiagoa dago".

Batzuek bainua hartzen badute ere, beste batzuek ur miragarria edaten dute bertan, eta badira ur horrekin botilak betetzen dituztenak, asko gainera.

Molinari Lourdesko urari buruz galdetuta, esan digu: "Lourdesen, Ama Birjina agertu ei zen koban, ura sortu ei zen, eta ur horrek badu esanahi berezia, baina sinbolikoa da. Fenomenologia erlijiosoan, ura ez da edozer gauza: karga sinboliko garrantzitsua du, eta hala da Lourdesen ere".

**FATIMARA, ASTEON**

Erromesaldien helmugak asko dira, eta fededunak batera zein bestera joaten dira, Ama Birjinari zein santuei otoitz egitera.

Gureko hainbat erromesen helmuga Fatima izango da aurki. Hilaren 22an abiatuko dira, eta bost egun egingo dituzte han.

Jon Molinaren esanetan, "Lourdesera jende gehiago joaten da, gertu dagoelako, eta Fatimak ez duelako Lourdesek beste indar. Gainera, bi gauza erabat ezberdinak dira. Fatimak ez du zerikusirik gaixoekin".

Gehiago edo gutxiago, badira gurean Fatimako Ama Birjinarekiko debozioa dutenak ere. Horietako bat Jon Zubieta Arantzazuko fraidea da. Bizkaitarra izanik, hango erromesekin batera joaten da, eta debagoiendar batzuk ere izaten ditu lagun bidaian. "Bergaratik, aurten ez da erromesik etorriko gurekin; Oñatitik, gutxi batzuk, eta Arrasatetik ere. Beste urte batzuetan, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik ere etorri izan dira".

Hemendik joandako erromesek Fatimako elizkizunetan hartzen dute parte lehen egunean Ama Birjina agertu zeneko kaperatxoan, eta bigarrenean, basilikan. "Nire erromesei nik neuk ematen diet meza, eta euren laguntza ere izaten dut elizkizunetan. Arratsaldeko meza gaztelaniaz izaten da, eta han hartzen dugu parte; batzuetan, ni neu buru naizela, eta bestetan, konzelebratu egiten dugu, beste apaizekin batera meza esan, alegia", azaldu digu Jon Zubietak. Mezak ez ezik. arrosarioa eta prozesioa ere izaten dira egunero: "Prozesioan, Ama Birjinaren irudia erakusten da, eta gure erromesek ere behin, gutxienez, eramaten dute, txandaka izaten baita", dio Zubietak.

**INGURUAK BISITATU**

Arantzazuko fraideak kontatu digu nola hiru artzaini agertu zitzaien Fatimako Ama Birjina: "Bi anai-arreba eta hauen lehengusina ziren artzainak. Lucia zen nagusiena eta, batez ere, berari agertzen zitzaion. Berak egiten zuen hitz Ama Birjinarekin; Franciskok ikusi, ikusten zuen, baina hitz egin eta entzun, ez; eta Jacintak, hirugarrenak, entzuten zituen horren esanak".

Fatiman, basilikan, daude ehortzita, hain zuzen ere, hiruren gorpuak, eta bertan entzuten dute bigarren eguneko meza.

Otoitzerako ez ezik, inguruak bisitatzeko ere aprobetxatzen dute bidaia: "Bisitatzen ditugu umetxo horiek bizi zireneko etxeak. Konpondu dituzten arren, ikusten da pobreak zirela artzainak. Herria ere ikusten dugu: parrokia, kanposantua... Egun batean, txangoa ere egiten dugu: Lisboara, Coimbrara... Aurten, Oportora joatekoak gara", jakinarazi digu Jon Zubietak.

**AMA BIRJINAREKIKO DEBOZIOA**

Fatimara joateko arrazoia fedea izaten da, "Ama Birjinarekiko debozioa. Hori azaltzeko, elizkizunetara joaten dira, hitzaldiak entzuten dituzte, eta parte hartzen dute mezatan eta gaueko arrosarioan. Bideo bat ere ikusten dugu, Ama Birjinaren agerraldiei buruzkoa", diosku Zubietak.

Jendea ez omen da joaten Ama Birjina berriz agertuko den ustean, mesedeak eskatzera baizik. Jon Zubietaren esanetan, "erromesaldia guk, batez ere, bakearen alde egin izan dugu. Baina eskariak askotarikoak izan daitezke. Itsutasuna duen emakume batek badakit etorri nahi duela aurten. Familiakoen alde ere errezatzen du jendeak. Behin joan eta gehienek errepikatu egiten dute erromesaldia. Horrek erakusten du ez doazela turismoa egitera, baizik eta Ama Birjinarekiko fedea erakustera".

Lourdes eta Fatima eta beste hainbat helmuga. Fedea lagun hartuta joaten dira sinestun adsko erromes. Biziberrituta itzultzen dira gehienak, otoitzean zein beste batzuei laguntzen emandako egunen nekea urte guztirako oroitzapenean gordetzen dutelarik, hurrengo joan bitartean.

**"Fenomenologia erlijiosoan, ura ez da edozer gauza, karga sinboliko handia duelako, eta hala da Lourdesen ere"**

**"Fatimara joateko arrazoia fedea da eta, Ama Birjinarekiko debozioa azaltzeko, elizkizunetara joaten dira fededunak"**



**Mari Tere Maiztegi**
Erromes oñatiarra Lourdesera

Orain dela 43 urte joan zen lehen aldiz Lourdesera Mari Tere Maiztegi eta, urte batzuetan huts egin badu ere, askotan joan da Frantziako santutegira erromes. Aurten ere joan da bertara: "Laguntzaile modura joaten gara. Gaixoak etxetik ateratzea da gure nahia, eta, han lau egun pasa ostean, nekatuta baina, era berean, pilak kargatuta bueltatzen gara. Gainera, probetxugarri sentitzeak indarra ematen digu", esan digu.

Oñatiko boluntario gehienek jangeletan egiten dute lan. "Oso goiz ibili behar izaten dugu. Goizeko seietarako jaiki, meza entzun eta, gero, gaixoek gosal dezaten, dena prest izaten dugu, eta gosaria ematen diegu. Bazkaria ere 12:30ean egiten dute, eta afaria 18:30ean, dena oso goiz", azaldu digu Mari Terek.

Fedeak baino gehiago, laguntzeko gogoak eramaten du Mari Tere Maiztegi Lourdesera: "Nik Aita Gurea eta horrelako otoitz askorik ez dut egiten han. Nire otoitza izaten da gaixoekin berba egitea eta gaixoei barrea eragitea. Dena den, Arrosarioa errezatzera joaten gara", diosku.

**MIRARIRIK IKUSI GABE**

Putzuetara sekula ez dela sartu esan digu Mari Terek. "Hala ere, nahikoa mirari iruditzen zait hainbeste gaixo aurrera eta atzera ibili eta ur putzuetan ezer larririk ez gertatzea".

Hainbeste urtean joan arren, ez du miraririk ezagutu: "Hainbat apaizek esaten dute sendaketak egon direla, baina mirari bezala ez daude onartuta".

Nekatuta itzuliko dira egonaldi honen ostean, baina berriz ere bueltatzeko gogoz: "Urte guztirako indarra pilatzen dugu gaixoei lagunduz", dio Maiztegik.



**Begoña Goitia**
Arrasateko erromesa Fatiman

Emakume fededuna izanik, Begoña Goitia arrasatearra leku askotan izan da erromes: "Erromara, Xabierrera, Asisera... erromes modura ahalik eta toki gehienetara joan naiz".

Lourdesen ere egondakoa da eta, iaz, Fatimara joan zen: "Fatimako erromesaldia gehiago gustatu zitzaidan: umiltasun handiagoa ikusten da fedearekiko, beste giro bat dago", esan digu.

Fatimarako erromesaldian, gehienbat, bakea eskatzera joaten direla esan digu: "Bakea baldin badaukagu, beste guztia berez etortzen da eta, horrela, ea mundu hau konpontzen den pixka bat. Norberarendako aurrera jarraitzeko indarra ere eskatzen dugu".

Fatiman errezoa egiten dute, batik bat, baina toki berriak ezagutzeko ere nahikoa denbora izaten dute. "Beste batzuk nola bizi diren ikusteko aukera ematen digu horrek". Erretratuak ere atera ohi dituzte, eta guretik joandako beste erromes batzuekin hiru ume artzainei Ama Birjina agertu zitzaien tokian ateratako argazkia ekarri digu. Egun, kaperatxoa dago bertan.

**AMABIRJINAREN LAGUNTZA**

Jendea Fatimara zerk eramaten duen galdetuta, esan digu fedea dela arrazoirik nagusiena: "Ez dut uste erromesak joaten direnik Ama Birjina ikusteko itxaropenez; ni neu ez, behintzat. Gehienbat Ama Birjinak lagun egiten digula uste dugulako joaten gara. Inguruan izan ditut gaixoak, eta fedeak eta Ama Birjinaren laguntzak aurrera egiteko adorea eman didate".

Aurten ez du joaterik izango Begoñak, baina Arrasatetik bi erromes joango direla jakinarazi digu.

**POLITIKA** > HAUTESKUNDEAK 2007

# "Aurreikusi moduan doa AHT", esan du Sustapenak

Victor Morlan, Espainiako Sustapen Ministerioko Azpiegituren Idazkaria, egon zen Arrasaten

AHTren aldeko apustu garbia azaldu zuen PSEko Miguel Buen Aldun Nagusirako hautagaiak




**PRENTSAURREA** Ezkerretik eskumara, Paco Gartzia, Victor Morlan eta Miguel Buen. ARRITXU BARRUSO

**A.B./L.K.** > ARRASATE
Espainiako Sustapen Ministerioko Azpiegituren Idazkaria, Victor Morlan, Arrasaten izan zen joan den egubakoitzean, eta Abiadura Handiko Trenaren inguruan hitz egin zuen: hain zuzen ere, dena pentsatutakoaren arabera doala aurrera, eta AHTrekin Euskal Herria Europako trenbide sarearekin lotuta geratuko dela esan zuen. Hala adierazi zuen Madrilgo ordezkariak egubakoitzean PSE alderdiak antolatutako prentsaurreko baten. Paco Gartzia Arrasateko alkategaia eta Miguel Buen Aldun Nagusi izateko hautagaia ere izan ziren bertan.

Morlanek gaineratu zuenez, Gasteiz eta Bilbo artean, zazpi zatitan, dagoeneko hasi dira lanak, eta zehaztu zuen 29 kilometrotan egiten dabiltzala lan horiek, eta 448 milioi euroko aurrekontua dutela.

Gogorarazi zuen, gainera, Legutiano eta Eskoriatza bitartean bi fasetako lanak hasita daudela, eta azaldu du Arrasate eta Irun bitartean plataforma egiteko lanak Eusko Jaurlaritzak esleituko dituela, eta Estatuak, argindar sistema eta komunikazio azpiegiturak.

Espainiako Gobernuak 4.178 milioi euro inbertituko du AHT egiteko, 2005-2020 bitartean Estatuko Azpiegiturak Hobetzeko Plan Estrategikoak jasotzen duenaren arabera.

**AHT BULTZATZEKO AGINDUA**
Sozialistek AHTren aldeko jarrera garbi utzi nahi izan zuten agerraldian. Hala, Miguel Buenek agindu zuen "sozialistok politikatik eta erakundeetatik" bultzatuko dutela AHT, eta Eusko Jaurlaritzarekin lortutako akordioak "aurrera" jarraitzen duela. Gaineratu zuen, akordioei esker, aurrera egitea oztopatzen zuten popularren eta nazionalisten arteko ika-mikak gainditu egin direla.

"Euskal *Y*-ak sozialistok kudeatzeko gaitasuna dugula esan nahi du", esan zuen Aldun Nagusi izateko hautagaiak.

Euskal Herrirako bestelako azpiegiturak bultzatu dituztela gogorarazi zuen Miguel Buenek, hala nola, Eibar-Gasteiz edo Beasain-Durango autobideak, eta herri guneak bide horiekin lotuko dituztela agindu zuen.




JOSETXO ARANTZABAL

## Udal euskaldunak eskatzeko bizikleta martxa egin zuten egubakoitzean

Udalak euskalduntzearen aldeko bizikleta martxa antolatu zuen Euskal Herrian Euskaraz taldeak joan den egubakoitzerako. Elgetatik eta Antzuolatik talde bana irten, Bergaratik eta Arrasatetik pasatu, eta Aretxabaletan bukatu zuten ibilaldia; han, ongietorria egin zieten eta euren aldarrikapen taula irakurri zuten. 40 bat lagun batu ziren han.

Besteak beste, euskara lehen udal hizkuntza izatea, Udalek normalkuntzaren alde egitea, giza eta diru baliabideak ipintzea... eskatu zuten.

**GIZARTEA** > BAKETIK

# Afrikaren gaineko astea Arantzazun

Afrikaren inguruko ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, musika, bazkaria... antolatu dituzte Baketikek eta TAU Fundazioak

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI
Baketik Arantzazuko Bake Zentroak eta TAU Fundazioak Afrikaren gaineko astea egingo dute, ekainaren 4tik 10era, *Arantzazu, Afrikarekiko elkargune* izenburuarekin.

Programak bi aukera ematen ditu: astelehenetik egubakoitzera, Afrikako errealitatera hurbiltzeko ikastaroa, Mbuyi Kabunda afrikanistak zuzenduta; eta zapatuan, hainbat ekintza: 11:30ean, Kabundaren *Afrika globalizazioan* hitzaldia; 14:00etan, herri bazkaria; 17:00etan, *Salomonen diamantea* dokumentalaren estreinaldia; eta 18:30ean, Mamadu Cissoko talde afrikarraren kontzertua. Azkenik, domekan, 10:00etan, ordu eta erdiko mendi irteera erraza egingo dute, eta 12:45ean, amaiera ekitaldia M'Lomp kultura elkartearen musika saioarekin.

Horrez gain, asteburu osoan, Afrikaren Aldeko Taldea osatzen duten Gobernuz Kanpoko Erakundeen erakusketa egongo da Gandiaga Topagunean.

**IZENEMATEA**
Topaketotan parte hartzeko, izena eman behar da, honako telefono zenbakian: 943 25 10 05; eta informazio gehiago dago *www.baketik.org* webgunean. Jardunaldiotan parte hartzeak "aberatsago" izateko balio duela diote antolatzaileek.

**EKONOMIA** > ENPRESA BERRIAK

# Euskadiko Kutxaren sari bat, ibarrera

Enpresa Teknologikoenaren aipamena jaso zuen Ikus Entzunek Gaztempresaren topaketetan

Enpresa berria sortu nahi duten gazteei laguntzea da Gaztempresaren helburua

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Euskadiko Kutxak Eusko Jaurlaritzaren eta MCCren laguntzarekin egiten duen Gaztempresa programak bere topaketak egin zituen joan den martitzenean, eta hainbat aipamen banatu zituen programaren bidez sortutako enpresen artean; horietako bat, Enpresa Teknologikoenaren aipamena, Arrasateko Ikus Entzun enpresari eman zioten. Joxe Villarrek jaso zuen aipamena, Donostiako Londres hotelean egindako ekitaldi baten.

Enpresa horrek, batez ere, instalazio akustikoak hobetzen egiten du lan; besteak beste, Bilboko metroko, Arantzazuko Gandiaga Topaguneko eta Arrasateko parrokiako soinu eta megafonia sistemak antolatu eta hobetu dituzte.

**IAZ, 272 ENPRESA**

Gaztempresa Fundazioa 2002. urtean sortu zuten, EAEn eta Nafarroan enplegua sortzeko eta iraunarazteko ekimen berriei laguntzeko helburuarekin. Besteak beste, MCCk parte hartzen du Gaztempresan.

Iazko ekitaldiaren emaitzei begiratuta, guztira, lau lurraldeotan, 272 enpresa eta 426 lanpostu sortu ziren Gaztempresaren bidez; Gipuzkoan, 77 eta 119, hurrenez hurren. Enpresa gehienak norbanakoenak ziren: hala, Gipuzkoan, 77tik 40 ziren horrelakoak. Zerbitzu sektorekoak dira gehienak: Gipuzkoan, iaz, 45.

Ekintzaileei dagokienez, gehienek 30-33 urte bitartean dituzte; Gipuzkoan, 30,12 da batez bestekoa. Gehienak emakumezkoak dira: Gipuzkoan, 46 emakumezko eta 31 gizonezko izan ziren iaz. Bestalde, batez besteko inbertsioa 58.020,33 eurokoa izan zen iaz Gipuzkoan; eta batez besteko mailegua, 34.062,65 eurokoa.



**IKUS ENTZUN** Enpresa Teknologikoenaren aipamena jaso zuen. GOIENKARIA

**HAUTESKUNDEAK 07**

## EAJ garaile Batzar Nagusietan, dio Lakuak

Boto aurreikuspenen gaineko inkesta bat egin berri du Lehendakaritzak

**L.K.** > BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabineteak egindako inkesta baten arabera, EAJk irabaziko ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietako hauteskundeak, botoen %23rekin. Bigarren PSE izango litzateke, %20,5ekin; gero, ezker abertzaleko kandidaturak, %18,5ekin; EA eta PP, bakoitza %13rekin; eta, azkenik, EB-Aralar, %10,5ekin.

Orain hiru urteko Batzar Nagusietako hauteskundeetan, emaitzak hauek izan ziren: EAJ-EA, %46,85; PSE, %23,60; PP, %15,11; Ezker Batua, %6,98; eta Aralar, %5,58.

Inkestaren arabera, Bizkaian ere EAJk irabaziko luke, botoen %36,8rekin; eta Araban, PPk, %26,5ekin; bigarren, PSE, %26rekin.

**LANDA INGURUNEA** > LEHIAKETA

# Landa guneetarako ideia eta proiektu lehiaketa Debarro osoan egingo dute

Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapen agentziek batera egingo dute aurtengo deialdia, eta bihar, martitzena, aurkeztuko dute Antzuolan

**L.K.** > BERGARA

Landa Inguruneko Ideia eta Proiektu Berritzaileen sariketa antolatuta dute Deba Garaia eta Debemen Debagoieneko eta Debabarreneko Landa Garapenerako Elkarteek, eta bihar, martitzena, aurkeztuko dute aurtengo deialdia Antzuolako Olaran etxean.

Aurtengo berritasuna da, hain zuzen, bi agentziek batera antolatu dutela; aurretik, hiru edizio egin ditu Deba Garaiak bakarrik. Debabarrenean, lehenengo aldiz izango dute lehiaketa hori.

Helburua eta oinarriak antzekoak dira: hots, landa ingururako ideia eta proiektu berriak bultzatzea eta saritzea. 1.000 eta 500 euroko sari bana dago eta, lehenengoarendako, gainera, bere proiektua garatzeko beka egiteko 3.000 euro, aukeran.

**DEBARROA**

Deba Garaia agentziako Mari Karmen Iturbek dioskunez, bi eskualdeetako agentziek daramaten Debarroa proiektuaren barruan dago deialdi hori. Proiektuak Debarroko herritarrak landarekiko sentsibilizatu nahi ditu, eta bi elkarteek egoki iruditu zioten lehiaketa ere batera egiteari.

Iturbek dioenez, "orain arte, proiektu kopuru egokia aurkeztu izan da, baina lehiaketari beste bultzada bat eman nahi izan diogu eta Debarro osora zabaldu, ea jende gehiago animatzen den". Aurten, lehengo oinarri berberekin egingo dute, eta, zelan irteten den arabera, pentsatuko dute berritasun gehiago egin.

Agentziak proiektu irabazleari beka eskaintzera eta, dena garatuta badago, egi bihurtzen laguntzera konprometitzen dira.

Erantzun webgunean eta iPod bat irabazi!



Praktikak eginez enpresetan, zenbat ordu egiten dira Arizmendi ikastolako LANBIDE HEZIKETAN?

www.arizmendi.ikastola.net/lanbide

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa

Arizmendi ikastola

Arrasateko Gesalibar auzoan dago Aita Menni ospitalea. Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien kongregazioaren baitan dagoen zentroan, buruko gaitzak dituzten gaixoekin jarduten dute. Domekan, 22. urtez, gaixoen senitartekoekin topaketak egingo dituzte. Hitzordu hori aitzakia hartuta, Aita Menni ospitaleaz eta bertako jardunaz egin dugu berba arduradunekin.

**Iñaki Agirre** > Aita Menni ospitaleko gerentea

# "Ezjakintasunak eraginda, patologia psikiatrikoak estigmatizatuta daude"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Arrasateko Garagartza auzoan, bi ospitale daude: San Juan de Dios eta Aita Menni. Buruko gaitzen tratamendua da bien oinarri, baina bakoitzak baditu berezitasunak. Aita Menniko gerente Iñaki Agirrek ospitalearen gaineko azalpenak eman dizkigu. Buruko gaitzen gaineko aurreiritziak ere aipatu ditu.**

**Zein zerbitzu eskaintzen ditu Aita Mennik?**

Aita Menniko zerbitzuen oinarrian, beti dago buruko osasuna. Adinekoekin ere jarduten dugu, baina hauek ere mendekotasunak dituztenak dira, buruko gaitzak, batik bat. Gesalibarko egoitzan, batetik, 80 ohe dauzkagu, iraupen labur zein luzeko psikiatria unitatean. Ospitale orokorretako psikiatria sailetan, tratamendu zorrotzak egiten dira, baina ondoren, tratamendu intentsiboak behar dira, epe luzerako. Horrelakoak egiten dira egonaldi mugatuetan, baina kasu batzuetan, egonaldi luzearen beharra ere izaten da. Beste 350 ohe psikogeriatriako unitaterako dira, adinarekin lotutako buruko gaitzak dituztenendako. Beste sail batek adinekoen egoitza moduan funtzionatzen du, betiere, gaixoak mendekotasun handia duenean; hartutako garuneko kaltetuen unitatean, 19 ohe dauzkagu. Bestalde, Gesalibarko egoitzatik aparte, bosna lagunendako lau etxebizitza dauzkagu Arrasaten, eta Bizkaian beste 340 ohe dauzkagu, Durangon eta Bilbon.

**Eguneko zerbitzuak zein egonaldi luzeak egiten dira, ezta?**

Bai. Egunean, batez beste, 1.000 gaixo dauzkagu. Psikiatrian, eguneko ospitalea daukagu, egonaldiaren eta ospitale orokorraren artekoa. Gaixoak euren familiekin bizi dira, baina, egunez, ospitalean jasotzen dute terapia; Arrasaten, Uribe auzoan dago hau. Bilbon, hartutako garuneko kaltetuendako zentroa dago. Ez dute ospitalean egon behar, baina tratamendua behar dute: neuropsikiatria, neuropsikologia, logopedia, fisioterapia… arlokoa. Tratamendu hori Gesalibarren ere ematen dugu. Donostian ere badugu garuneko kaltetuendako eguneko zentroa. Beste egoitza bat dugu patologia dualak dituztenendako; hau da, toxikoen kontsumoarekin lotutako buruko gaitzak dituztenendako. Eguneko zentro psikogeriatrikoak ere baditugu, besteak beste, Eskoriatzan, Durangon, Txurdinagan, Deustuan… Bestalde, gure profesionalek beste zenbait zentrotan ere jarduten dute.

**Eguneko zentroak aste bukaeretan ere ematen du zerbitzua.**

Gaixoak eguneko zentroetan daudenean, familiakoak lasai egon daitezke, zainduta daudelako eta, gainbehera datozen arren, saiatzen direlako suspertzen. Arrasateko eguneko zentroan eskaintzen dugu asteburuetan zerbitzua, baita Eskoriatzakoendako ere. Aste barruan baino eskari gutxiago dago aste bukaeretarako; batetik, ezjakintasunarengatik, eta bestetik, senideak libreago daudelako etxean adinekoak zaintzeko.

**Ospitaleko zaintzaz gain, familiakoena ere beharrezkoa da. Horregatik antolatu dituzue familia arteko topaketak?**

Topaketak irekiak dira, baina, batez ere, gurean denbora luzez dauden gaixoendako daude antolatuta. Izan ere, urte batzuk pasa ostean, senideak gero eta gutxiago etortzen dira. Beraz, ospitaletik lan handia egiten dugu urtean barrena gaixoen eta familiakoen arteko harremanari eusteko. Badira 22 urte hasi ginela urtean behin jai egun bat egiten, elkartzeko eta harremanak sendotzeko ospitaleko langileon, gaixoen eta senideen artean. Gaixo askorendako, urteko egunik handiena da.

**Ze zeregin dute gaixoen senideek?**

Denok daukagu familiaren beharra, eta erakunde baten sartuta dauden gaixoek, are gehiago. Ez dira euren senideekin bizi, eta nukleo hori munduarekiko lotura da gaixoendako, nortasuna ematen diena. Gainera, batzuetan, familiaren parte-hartzeak zeresan handia du tratamenduetan; euren laguntza ezinbestekoa da terapietan. Esaterako, batzuetan komenigarria da gaixoak, hainbatean behin, etxera joatea, eta jakinarazten diegu gurasoei gaixoen portaera jakinen aurrean nola jokatu behar duten. Hortaz, talde terapeutikoak lan handia egin behar du, gaixoekin ez ezi,k baita familiarekin ere. Komenigarria da jakin dezaten hemen zein lan egiten dugun, eta jarrai dezaten hemengo lana gaixoa etxean dutenean.

**Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean, masterra abiarazi zenuten. Hezkuntza gai garrantzitsua da zuendako?**

Orain dela 20 urte, psikologia klinikoko masterra abiatu genuen, eta psikologoek gurean egin dituzte praktikak. Bologna prozesua dela eta, aldaketak izan dira, baina oraindik promozio berria ez da hasi. Neuropsikologia arloan ere jardun dugu hezkuntza proiektuetan. Beste zenbait unibertsitate eta ikastetxerekin ere hitzarmenak dauzkagu.

**Ikerketa arloan ere egin duzue proiekturik?**

Oraindik lantzeko daukagun esparrua da.Baina, Tekniker edo Robotiker bezalako enpresekin, ikerketa proiektuak garatu nahi ditugu, teknologia eta gaixoen zaintza uztartuz.

**Aurrerantzerako, zein asmo duzue?**

Etorkizunari modu baikorrean begiratzen diogu. Gizartearen ereduari erreparatuta, eta populazioa zahartzen ari den neurrian, lanik ez zaigu faltako. Bestalde, Mendekotasun Legearen garapenak gureak bezalako zerbitzuen beharrak areagotzea ekar lezake.

**Gizarteak aurreiritzi asko du buruko gaitzei buruz?**

Patologia psikiatrikoak estigmatizatuta daude. Ezjakintasunak eraginda, beti egon izan da hesi handi bat buruko gaitzak dituzten gaixoen eta gizartearen artean. Denboraren joanean, gauzak asko aldatu dira eta, gaur egun, gaixoek ia ohiko bizimodua egin dezakete, baina jendearen errezeloa oraindik badago. Gure helburua da gaitza ahalik eta eramangarriena egitea, bai gaixoari eta baita ingurukoei ere.




Arrasateko Gesalibar auzoan dago Iñaki Agirrek kudeatzen duen Aita Menniren egoitza nagusia. I.A.

ZERBITZUAK

**"Eguneko zerbitzuetan zein egonaldi luzeetan, buruko osasuna zaintzea da gure zerbitzuen oinarria"**

FAMILIA

**"Gaixo asko ez dira senideekin bizi, eta nukleo horrek munduarekiko lotura, nortasuna, ematen die"**

HEZKUNTZA

**"Deustuko Unibertsitatearekin, masterra egiten dugu, eta hitzarmenak dauzkagu ikastetxe batzuekin"**

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea gaur zabalduko dute**
Gaur hasi eta ekainaren 21era arte egongo da zabalik Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea. Astelehenetik eguenera izango da hori, 17:00etatik 20:00etara. Lau urtetik gorakoendako instrumentu eta balet eskolak daude. Baita helduendako talde bereziak ere.

OÑATI
**> Haurreskolan matrikula egiteko epea zabalik**
Maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiago, 943 71 64 05 zenbakian.

BERGARA
**> Pazkoetako herri bazkarirako txartelak salgai**
Pazkoetako herri bazkarirako txartelak eskura daitezke, dagoeneko. Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, 10 eurotan. Txartelak erosteko azken eguna da hilaren 22a –bazkaria 28an izango da.

DEBAGOIENA
**> Hiru Tenpluen Ibilbidea, egiteko irteera izango da hilaren 26an**
Mundumira jaialdiaren barruan antolatu dute. GR-120 bidea jarraituz, Loiolako Santutegia, Antigua baseliza eta Arantzazuko Santutegia bisitatuko dituzte. 9-10 ordu iraungo du. Izena emateko, deitu 902 18 14 71 zenbakira.

ARETXABALETA
**> Kirol elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko dei egin dute**
Gaur egungo zuzendaritza batzordeak hiru urte bete ditu, eta hilabeteko epea ireki dute batzorderako hautagai berriak aurkezteko. Hautagaitzak bidali behar dira Aretxabaletako 10. postakutxatilara.

BERGARA
**> Xamatz dantza taldean ibilitakoen bazkaria**
Ekainaren 9an egingo dute, 14:30ean, Agorrosinen. Aurretik 12:00etan elkartuko dira, Ariznoa tabernan. Izena emateko, sartu 5 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

BERGARA
**> Musika Eskolan matrikulazio epea, zabalik**
Ekainera bitartean dago matrikula egiteko aukera hainbat instrumentu eta taldetan. Izena emateko, jo Musika Eskolara astelehenetik egubakoitzera, 15:30etik 19:30era.

ELGETA
**> Zabalik ibilgailuen zerga ordaintzeko epea**
Ekainaren 10era arte dago zabalik ibilgailuen zerga ordaintzeko epea. Udalak eman du aditzera helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 8an zordundu zirela baimendutako kontuetan. Helbideratuta ez daudenak posta arruntaz bidaliko dira zergadunen helbide fiskalera.

ARETXABALETA
**> Patin sugea antolatu du Arizmendik, iazko marka hautsi nahian**
Hilaren 24an izango da, 18:30ean, Goroetan. Patinzaleei dei egiten diete hitzordura. Patinzale guztiek elkarri gerritik helduta 500 metroko ibilbidea osatu nahi dute, sugea puskatu gabe. Bigarrenez antolatu dute ekitaldia.

DEBAGOIENA
**> Gurean enpresa berriak sortzeko auzolandegia antolatu du Saiolanek Bergarako Elosu auzoan**
Inoiz euren enpresa sortzeko ametsa izan duten lagunei dago zuzenduta; parte hartzeko baldintza da ikasketak bukatutako gaztea edo langabea izatea. Uztailaren 16tik 29ra izango da auzolandegi berezi hori. Izena emateko epea zabalik dago 943 71 20 72 zenbakian edo *alarrea@eps.mondragon.edu* e-posta helbidean.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA
**> Baserri inguruneko plastikoa batzeko eguna**
Bihar, martitzena, batuko ditu Deba Garaia elkarteak baserri ingurko plastikoak. Ohiko lekuetan laga beharko da, arratsaldez. Bilketa lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu 943 76 25 47 zenbakira.

BERGARA
**> Gizarte zerbitzuen arloan diharduten taldeendako dirulaguntzak**
Udalak emango ditu laguntzok; 22.591 euro, hain justu. Baldintzak dira, besteak beste, legez eratutako taldea izatea eta Bergaran egitea jardueren egitaraua. Eskaerak egin behar dira ekainaren 10a baino lehen, udaletxean.

DEBAGOIENA
**> Domekero, meza esango dute Urbiako ermitan**
Domu Santu Egunera arte, domekero meza egingo dute Urbiako ermitan. Aita Joseba Etxeberria Arantzazuko frantziskotarrak zuzenduko ditu elizkizunak.

BERGARA
**> Loditzearen arrazoien gaineko hitzaldia**
*Zergatik loditzen gara?* delako hitzaldia emango dute. Udal Euskaltegiak antolatu du. Bihar, martitzena, izango da, 18:30ean, Udal Euskaltegian (Zabalotegi 13). Hizlaria izango da Mireia Alberdi. Hitzaldia irekia da.

## etxeko leihotik


**Usoa Agirre** > Goienako Telematika saileko arduraduna

# Lau urte berreskuratu nahi astebetean

Astebete bakarrik geratzen da. Astebete bakarrik hauteskundeen egun handirako. Dagoeneko berotu dituzte guztiek motorrak eta hasi dira han eta hemen boto bila. Baina, tontoak garela uste al dute? Lau urteotan egin dituztenak ikusi ez bagenitu moduan jokatzen dute, honetan berriak balira moduan. Inoiz kasurik ez egin, eta, batbatean, astebete falta denean, ohore guztiak egiten hasten zaizkizu. Urtero jotzen dugu txistua San Isidroko azokan, baina aurten, txorizoa eta salda emateko, alfonbra gorria jartzea bakarrik falta zitzaien. Ez dakite botoa emango diegun edo ez, baina, badaezpada ere, hurrengo lau urteetarako ohore guztiak egin dizkigute.

**"Errazago eta gusturago egiten dira gauzak behetik gora; eta ez alderantziz"**

Herritarren konfiantza lortzeko, ez da nahikoa azken astean edo urtebetean kasu egitea. Herritarrengan konfiantza izan behar da, eta eurekin berba egin. Errazago eta gusturago egiten dira gauzak behetik gora; eta ez alderantziz, goitik behera. Antzuolan, gauzak aldatuko diren esperantza daukat domekatik aurrera; berehala ez dira aldatuko, baina hasi, behintzat, hasi beharko dugu. Ea denon artean bultzadatxo bat ematen diogun herriari.

**> Antzuolan loteria tokatu zaigu. Loteria moduko bat izan baita estatuko fiskaltzak eta abokatuak egin dutena. Zuten sinesgarritasun apurra galdu dute. Zer gertatuko da Lizartza eta Elduaienen?**

**> Hauteskunde kanpainek zerbaiterako balio dute? Urte guztian zehar ez bagenu politikaririk ikusiko, zentzua izango luke, baina hain aspertuta gaude dagoeneko beti gauza berdinak entzuten...**

## debagoiendarrak kanpoan

Laura Lakontxa > Oñati

# "Saltxitxak eta garagardoa probatzea ezinbesteko izaten da Alemanian"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Laura Lakontxa oñatiarra Alemanian bizi da azken 13 urteetan. Sei hilabetetarako joan zen, eta gaur egun bere senarra dena ezagutu zuen; hala, han gelditzea erabaki zuen. Munichen bizi da, Oli senarra eta Noah, Ekhi eta Unai semeekin.**

**Zenbat urte dira Alemaniara joan zinela, eta zertara joan zinen?**
Badira urte batzuk Alemanian bizi naizela. Orain dela 13 urte etorri nintzen Munichera. Ikasketak amaitu eta sei hilabetetako praktika batzuk egitera etorri nintzen. Gaur egun nire senarra den Oli ezagutu nuen, eta hemen geratzea erabaki nuen. Ordutik, hemen bizi naiz, senarrarekin eta hiru semeekin: Noah, Ekhi eta Unai.

**Orain, Municheko bizimodura egin zara, baina, gogorra izan zen egokitzea?**
Ez, hemengo bizitza ez zitzaidan batere zaila egin. Aurretik, urte bete Dublinen bizi izan nintzen, eta, han ere, ez nuen zailtasunik izan. Hasieratan, arazo handienak hizkuntzarekin izan nituen, baina, behin hemengo hizkuntza menderatuta, samur egokitu nintzen bizimodura.

**Alde handia dago Alemaniako eta Oñatiko bizimoduen artean, egunerokotasunari dagokionez?**
Egunerokotasunari dagokionez, gure ibarreko eta Alemaniako bizimoduaren artean ez dago diferentzia handirik. Akaso, eguraldian dago alde handiena. Hemen, jendeak asko aprobetxatzen du eguraldi ona; edozein ordutan, zelai, parke, laku, erreka izkina... leku guztiak jendez betetzen dira, eguraldi ona aprobetxatu guran. Mendira ere, jende asko joaten da, Alpeak gertu daude dira-eta.


GOIENKARIA

**Munichen bizi da**
Orain 13 urte praktikak egitera joan zen oñatiarra. Orain, Swiss Re-n egiten du lan, aseguru etxe batean.

**Oñatira etortzeko ohitura baduzu?**
Egia esan, gura baino gutxiagotan joaten gara Oñatira; normalean, urtean bitan joaten gara etxekoei eta lagunei bisita egitera.
Batzuetan, Euskal Herria bizi izatera joatea ere pentsatu izan dugu; izan ere, bai gizonak eta bai umeek oso gustuko dute Oñatiko bizimodua.

**Alemaniako zure lagunek ezagutzen dute Oñati?**
Bai, gure Alemaniako lagunak etorri izan dira Oñatira. Lagunei kostaldea eta Oñatiko inguruak erakusten diegu, eta oso pozik bueltatzen dira Alemaniara, asko gustatzen zaie-eta gure herria.

**Oñatitik Alemaniara bisitan doan lagun bat nora eramaten duzu?**
Guri bisitan etortzen zaizkigun lagunei, Munich inguruko herriak erakusten dizkiegu. Eginbeharreko irteera bat Neu Schwanstein-era izaten da, Luis II.aren gaztelua ikustera. Gero, Hofbräuhaus-era garagardoa edatera, hau da, Oktoberfest-era.
Behin Alemaniara etorrita, probatu beharreko jakiak, duda barik, saltxitxak eta garagardoa izaten dira.

**kale inkesta**

# Gustatzen zaizu zela geratu den Oñatiko parrokiako kanpandorrea, berritu ondoren?



**Inaxio Anduaga**
Erretiratua
Oñati

Nik uste dut parrokia, konpontze lanekin, polita geratu dela; egia esan, Oñatiko parrokiak bazeukan berritu beharra. Orain, argi ikusten dira parrokiako kanpandorrean dauden irudi guztiak.



**Oiartz Garitaonandia**
Langilea
Oñati

Egia esan, ez diet kasu handirik egin konpontze lanei, baina, ikusten denez, ondo geratu da. Lehen oso egoera txarrean zegoen parrokia, eta, orain, berritze lanekin, beste itxura bat hartu du.



**Telesforo Zubia**
Erretiratua
Oñati

Lehen oso gaizki zegoen parrokia; berritze premia handia zeukan. Orain, polita geratu da; hala ere, Gotzainen irudiak ez datoz bat kanpandorre guztiarekin. Erlojua, ordea, oso dotore geratu da.



**Belen Garcia**
Langilea
Oñati

Duda barik, oso polita geratu da kanpandorrea. Lehen itxura txarra zeukan; harri guztia beltza zegoen eta, orain, behintzat, irudi ezberdinak ikusi egiten dira. Berritu beharra zeukan Oñatiko parrokiak.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA
**> Brgaratik Antzuolara bidea, konponduta**

Bergaratik Antzuolara bidean, lehen, bihurguneak kontuz-kontuz hartu behar ziren, izan ere, antzuolar batek dioenez, "gurpila bertan uzteko moduko zuloak zeuden; hala, bihurgunea zabal-zabal hartu behar zen, edo estu-estu". Orain, irakurle horrek dioskunez, "zati hori konpondu egin dute, eta oso ondo geratu da". Alde txar bat ere aipatzen du, ordea: "Orain, gidariak abiada handian dabiltza; hori norberak zaindu behar du".

OÑATI
**> Umeek kartelak apurtzen dituzte**

Irakurle batek deitu digu hauteskunde kanpainaren inguruko kexu bat azaltzeko: "Alderdi batentzako kartelak ipintzen ibili nintzen joan den astean. Hurrengo egunean, apurtuta agertu ziren. Askotan, nik neuk ere umeak ikusi izan ditut kartelak apurtzen. Nire kexua guraso horiei doakie. Izan ere, ume askok harrapatzen duten guztia apurtzeko ohitura txarra dute", dio berak.

ESKORIATZA
**> Propagandan, paper larregi**

Eskoriatzar batek kritikatzen du hauteskundeetako propagandan "paper mordoa" erabiltzen dela: "Botoez eta gutunez ez ezik, alderdi askok liburuxkak-eta egiten dituzte. Euren programak azaltzea ondo dago, baina paper gutxiagorekin ere egin daiteke. Oihanek eskertuko lukete", dio gure irakurleak.

**usteak uste**

Edurne Burgaña

# Kale giroa Debagoienean ez da makala

Asteburua Debagoieneko zenbait herritan eman dut, hainbat ekintza zeudelako antolatuta, eta gauza bat argi geratu zait: kale giroa ona da berton.

Aretxabaletan, Euskararen Eguna ospatu zuten zapatuan. Loramendikoek egitarau zabala zuten antolatuta, tartean, babajana. 130 lagunetik gora bildu zen Udaletxeko arkupetan, eta giro ederrean egon ziren guztiak; 17:30 arte ez zituzten ipurdiak altxatu aulkitik.

Arrasaten, Erdi Aroko azoka egin zuten, eta han ere, postuen aurrean muturrak sartu nahian, jende mordoa ibili da. Tarteka euria egin du, eta horrek bisitari gutxiago egotea ekarri du, baina, hala ere postuak ikusteko lehenengo lerroan egotea ez zen lan makala... bira eta bultza!

**zorroztailea**



Markos Balentziaga

# Urrutiegi joan gara

"Baliogabetzeekin "urrutiegi" joan ote diren zalantzak agertuta ere, Conde Pumpidok adierazi zuen auzi horretan "minbizia" kendu dutela, baina "gaixoari minik eman gabe", hots, hauteskunde prozesua eta bozkatzeko eskubidea "arriskuan jarri gabe"."

Berria > 2007-05-18



Euskal Herrixaren inguruko politika-jardunak ustebakuak emoten dihardosku eten barik. Aldika, zoro-martxia be emoten dau jardun horrek. Begira.

Ez da gaurko kontua PPk zenbat zor dotsan Mayor Oreja bizareta belarridunari, Barne Ministerioko buru izan zan sasoian egin zeban lana. Foro de Ermua, AVT, Dignidad y Justicia, Manos Limpias... eta beste halako talde-eskutada bat orduan piztuak ez badira, sasoi hartan puztuak dira, eta ondorengo PPren politikiak hauspotuak eta xaxatuak. Erakunde horrek danak, zer dira: alderdi politikuak?, sindikatuak?, klub ekologikuak?, gastronomikuak? PPren baztar-nahasteko lanaren oñarri; hori, behintzat, badira.

*Egunkaria*-ren auzi dontsua, berbarako, hor dabil tribunaletako tribulaziñoetatik urten eziñik, oraiñ Dignidad y Justicia-ren ekiñagatik. Periodikuaren kontra zuztarrik daukan ezer juez-fiskalei erakutsi eziña ez da nahikua, behingo batez, auzibidia ixteko. Fiskaltzak guztia bertan behera lagatzia eskatuta dauka. Alperrik. Agintian egon zan sasoitik Auzitegi Konstituzionalian, Gorenian zein Auzitegi Nazionalian bere esaneko peoiak dauzka ipiñita PPk.

**"ANVren auziari partxis-partida baten antza hartzen dotsat nik"**

**"Daduaren arabera, fitxa batzuk aurrera, eta beste batzuk ez dira irten"**

Azken-azkena, baña, ANVrena da. ANVren kontuan, tribunalez gañera, Conde Pumpido Fiskaltzaburuak be izan dau bere protagonismo-mokadua. Conde Pumpido okozpeko papo-punpuillua eta gerribuelta maluzkotiak arintxuagak baleuzka ez leuke harri-jasotzen be aldrebes egingo... telebisiñuan, behintzat, mutikotia emoten dau. Baña ANVrenari partxis-partida baten antz haundixagua hartzen dotsat nik harri-jasotziarena baño. Dadua bota eta zerk irten daben... haren arabera fitxa batzuk aurrera egin dabe eta beste batzuk ez dabe irteerarik hartu partida politikuan. Kontua da daduaren eta fitxen arteko atzera-aurreretan zeozer trabatu jatela, eta Conde Pumpido jokalarixak urriñegi joan izana iritzi dotsa jokaldixari, hau da, daduak tapiz gañian puntu bakarreko (edo biko) aurkien ordez, dozena bat (edo bi) zerrenda legez kanpo lagatzia, akaso sei dauzkana erakutsi dabela; eta zerrenda-sailla mobimendurik egin eziñik geratu da! Urrutiegi joan dira, jakiña.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




**> ARRASATE**
Lanpostuak sortzearren, dirulaguntzak emango dizkie Udalak herriko enpresei **> 10**



**> ESKORIATZA**
Ibarraundi fundazioko estatutuak onartu dituzte, Leintz ibarreko ondarea gordetzeko **> 13**



**> ANTZUOLA**
Plazako obrak laster bukatuko dituzte, eta zabalik geratuko da orduan **> 14**

**ARETXABALETA** > EUSKARAREN EGUNA

# Giro jatorrean, eta euskaraz, pasa zuten zapatua Aretxabaletan

**GIROA**
Baba janean, 130 lagunetik gora hartu zuten parte

**EGUN GUZTIAN**
Goizetik hasi eta iluntzera arteko ekimenak egon ziren



**TRIKITILARIAK** Herriko trikitilariak giroa alaitzen ibili ziren Aretxabaletan, Euskararen Egunean. EDURNE BURGAÑA

**EDURNE BURGAÑA** > ARETXABALETA

Euskararen Eguna mendi ibilaldi batekin hasi zuten zapatuan Aretxabaletan. Loramendi Euskara Elkarteak Murrukixo mendi taldearekin elkarlanean antolatutako ekimena izan zen berau. Eguraldi txarra iragarrita egon arren, egun hodeitsua, baina ateri egon zen egun osoan.

**KALE GIROA HERRIAN**

Leizarra musika eskolako trikitilariek kalejira egin zuten musika eskolatik hasita, eta euren soinuekin giroa alaituz ibili ziren.

Haurrek ere eduki zuten euren tartea. Mitarte kalean, haurrentzako tailerrak egin zituzten. Aretxabaletako umeek parte hartzeko gogoa erakutsi zuten; pila bat joan ziren, eta nahikoa lana izan zuten denei musua margotzen.

Imanol Lazkano eta Iker Zubeldia bertsolarien txanda etorri zen atzetik. Leintz bertso eskolako ikasleek hasi zuten saioa, eta Leire Lardizabal Loramendi elkarteko kidea aritu zen gai jartzaile. Ordu berean, gazta-dastatzea egon zen, eta jende mordoxka bildu zen.

Udaletxeko arkupetan egin zuten baba-janak ere arrakasta eduki zuen. 130 pertsonatik gora bildu zen bertan, Uratz-alde, Urbaltz eta Muru-alde elkarteek prestatutako babak jan eta Batzokikoek egindako kafea hartzeko. Portaloia elkartekoak ere bertan agertu ziren, eta eurek banatutako letrekin, kantaldia egin zuten.

**UMEENDAKO EKINTZAK**

Bilbotik etorritako gaitariak ere herriko kaleetan ibili ziren giroa berotzen 17:30etik aurrera.

Gaztelekuko arduradunek antolatuta, herri kirolak egin zituzten 12 eta 16 urte bitarteko ume eta nerabeek.

Umeentzako beste tarte bat egon zen jarraian. 18:00etan, haurrentzako bolo-boloa egin zuten Udaletxe Zaharreko balkoitik; Loramendi elkartekoek, goxokiak eta beste hainbat gauza bota zituzten bertatik herriko txikienentzat.

Larrin dantza egin zuten 19:00etan Durana kalean. Herriko jendeak parte hartzen du horretan, eta gainera, dantza taldekoak ere aritzen dira; beraz, talde polita osatzen dute guztien artean.

Eguna amaitzeko, Turru-Tarra fanfarrearekin kalejira egin zuten aretxabaletarrek. Bilbotik etorritako musikariek egunari amaiera borobila eman zieten zapatuan.

**Leire Lardizabal** > Loramendi elkarteko kidea

## "Euskara normalizatzeko bidean lan handia dago, eta elkarlanean egiten bada, hobeto"




EDURNE BURGAÑA

**E.B.** > ARETXABALETA

**Zapatuko Euskararen Egunarekin amaitu da Euskararen Astea Aretxabaletan. Loramendi elkarteak antolatutako ekimena izan da, eta bertako kide Leire Lardizabalek azalpen gehiago eman dizkigu.**

**Zer dela eta Euskararen Eguna?**

1987. urtetik antolatzen den eguna da. Euskararen Astea antolatzen dena, hirugarrena. Loramendi Elkarteak urtean zehar euskararen normalizazioaren alde egiten du lan; batez ere, kultur ekintzak. Egun honetan, elkartearen eguna ospatzen dugu. *Eitteko prest* da aurtengo leloa.

Euskaraz egiteko prest, alde guztietan; horixe da leloak esan nahi duena. Beraz, helburu horrekin, hainbat ekintza antolatu ditugu, jai giroan egoteko. Herria bera ere apur bat mugitu nahi izaten dugu euskararen inguruan.

**Herritarrek parte hartzen dute?**

Egunean bertan, bazkarian, eta dauden ekintza askotan jendeak parte hartzen du. Gainera, hainbat elkartek lagundu dute: Loramendi dantza taldeak, Murrukixo mendi taldeak, eta herri bazkariko babak ere Aretxabaletako hiru gastronomi taldek prestatu dituzte.

**Aretxabaletan euskararen alde gauza asko dago egiteko?**

Aurten ukitu berezia eman nahi izan diogu. Gazteei zuzenduta, kanpaina bat egin dugu, euskaraz egitera animatzen. Izan ere, adin horretan, gaztelaniaz berba egiteko joera handia dago. Erronka nagusia gazteei begira da aurten, baina adin guztiei zuzendutako ekintzak antolatzen ditugu. Euskara normalizatzeko bidean, lan handia dago, eta elkarlanean egiten bada, hobeto.

ENPLEGUA > DIRULAGUNTZAK

# Lanpostu berriak sortzeagatik, laguntzak bideratuko dizkie Udalak herriko enpresei

Uztailaren 10era arteko epea zabaldu dute eskaerak aurkezteko; Udaleko Enplegu Zerbitzura jo beharra dago horretarako



SAIOLAN Enpresa berri askok Saiolanen du egoitza. MIREIA LARRAÑAGA

UBANE MADERA > ARRASATE

Udalak enpresa berriendako 2007ko dirulaguntza abiarazi du. Herrian enpresa txikiak eta lanpostu egonkorrak sortzen laguntzeko udal programa da hori.

Dirulaguntza hori eskuratzeko, eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte : Arrasaten zabaldutako enpresa berria izatea, lan lekua Arrasaten bertan duena eta lanpostu egonkor bat edo gehiago sortzen duena.

Horrez gainera, betebehar moduan, laguntzak eskuratzeko gutxieneko inbertsioa 6.000 eurokoa izan beharko da. Bestalde, kasu baten ere ez dute emango dirulaguntzarik, deialdi berean enpresa baten sortutako hamar lanpostu egonkor baino gehiagorengatik.

Enpresen artean, gainera, badira salbuespenak. Tabernek, esaterako, ezin dute parte hartu dirulaguntza programa horretan; ezta partizipazio publikoa duten enpresek ere, beste kasu batzuen artean .

Interesa dutenek uztailaren 10a baino lehen egin beharko dituzte eskaerak, Udaleko Enplegu Zerbitzuan (943 25 00 07, Marga Garmendia) edo honako e-posta helbidera idatzita: *enplegu@ arrasate-mondragon.net*

**EMAKUME, LANGABE ETA BESTE**

Udalari dagokionez, 50.000 euroko poltsa bideratuko du dirulaguntza horietarako. Kopuru horretatik, oinarrizko kopuruaren %100, gehienez ere, 3.600eurokoa izango da sortutako lanpostu bakoitzarengatik.

Era berean, kopuru horrekin gehigarriak diren bestelako laguntzak ere eskura daitezke. Adibidez, %15 gehituko da, diruz lagundu behar den lanpostua emakumeak, iraupen luzeko langabeak edo 45 urtetik gorakoak hartzen badu; eta %20 gehituko da, %33 edo hortik gorako elbarritasun ziurtatua duen pertsona batek betetzen badu lana.


GOSARIA Koalizioko kideek gosari-mitina egin zuten egubakoitzean. MONDRABERRI

POLITIKA> HAUTESKUNDEAK 07

## Erdialdea indartu behar da, EB-Zutik koalizioaren ustez

Hainbat alderdiri, hainbat sektoretatik, "boikota" egiten dabiltzala salatu dute

GOIENKARIA > ARRASATE

Hirigintzan egiten dituzten proposamenen artean, herriko parke eta berdeguneen zaintzan indar berezia egin gura du Ezker Batua-Zutik koalizioak. San Josepe harrobiarendako ere "erabilera egokia" aurkitu gura du; eta Zabaletako merkataritzagunearen harira, koalizio horrek erdigunea indartzeko ekintzak egitea beharrezko ikusten du. Bestelakoen artean, herritarren parte-hartzea defendatu zuten.

**BOIKOTA**

Hauteskunde kanpainaren martxari buruz berba egiten hasita, salatu dute euren kanpainari eta beste alderdi batzunari "boikota" egiten dabiltzala "demokrata ezezagun batzuk".

ZERBITZUAK > NORTASUN AGIRIAK EGIN EDO BERRITZEKO

## Uda sasoian ez dira etorriko Nortasun Agiriak egitera

Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean ez dira etorriko; beraz, ez da txandarik izango

U.M. > ARRASATE

Berez, hilean behin etortzen dira Biztanleen Arreta Zerbitzura (BAZ) Nortasun Agiriak egin edo berritzera. Baina BAZek jakinarazi du uda sasoian ez dutela zerbitzu hori emango Arrasaten. Horrek esan gura du urrira arte ez datozela.

Hori horrela, Nortasun Agiria tramitatzeko beharra duten arrasatearrek bi aukera dituzte hori egiteko: edo urrira arte itxaron, edo beste nonbaitera joan, kanpora.

Bigarren aukeraren harira, Arrasatetik gertuen, Eibarren eta Gasteizen arduratzen dira Nortasun Agirien tramiteetaz. Gainera, horietara joateko ez dago txanda aldez aurretik hartu beharrik.

Gasteizen, gainera, astelehenetik egubakoitzera bitartean, edozein egunetan joan ahal da (945 20 95 00, 09:00etatik 14:00etara). Eibarren, berriz, astean hirutan ematen dute zerbitzu hori: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan (943 53 17 00, 09:00etatik 13:30era) .

INDARKERIA > TRATU TXARREN KONTRA

## Kamiseta diseinu lehiaketa, "tratu egokien alde"

Biolentzia sexistaren jatorria eta ondorioen gainean hausnarketa egiteko kanpaina bideratuko dute

U.M. > ARRASATE

Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Plataformak kanpaina abiarazi du, Arrasateko gazteei begira: *Tratu egokien edo harreman duinen aldeko kanpaina*.

Helburu bikoitza du: batetik, biolentzia sexistaren jatorri eta ondorioen inguruko hausnarketa bultzatu; eta, bestetik, harreman motak aztertu eta, harreman sexistak baztertuta, harreman egokien aukeraketa bultzatu.

Hala, kanpaina hori egiteko, hainbat modu erabiliko ditu indarkeriaren aurkako plataformak. Tartean, kamisetak atera gura ditu, eta, kamiseta horiendako diseinua egiteko, lehiaketa deitu dute.

**MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN**

Lehiaketa horretan edozeinek parte hartu ahal du. Hori bai, badaude kontuan hartzeko zenbait baldintza: kamiseta guztiak beltzak eta mahuka laburrekoak izango dira; kamisetak serigrafiatzeko orduan, estanpazio bakar batean egiteko modukoak izan behar dute; diseinuak derrigor leloa eraman beharko du, eta diseinu hori kamiseta batean non eta zein eratan kokatu zehaztuko lukeen proposamena inprimatu eta koloretan eraman beharko da, besteak beste.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31ra artekoa da. Biztanleen Arreta Zerbitzura (BAZ) edo Emakume Txokora eraman behar dira, *freehand* formatuan eta CD baten gordeta.

UDALEKUAK

## Udalekuetan izena emateko azken eguna

U.M. > ARRASATE

Gaur, astelehena, bukatzen da Txatxilipurdik kudeatzen dituen udalekuetan izena emateko epea. Egin behar dena da izenemate orria bete eta Txatxilipurdi elkartearen egoitzara eraman, Pablo Uranga kalean. Jakinarazi dute oraindik badagoela jende gehiagorendako lekua.

**ITXIAK ETA IREKIAK**

Udaleku itxiak eta irekiak daude. Irekiak uztailaren 2tik 20ra bitartekoak dira, Arrasaten egiten dituztenak.

Itxien kasuan, hainbat aukera daude, data, adin eta lekuaren arabera. Bilbo, Etxarri eta Orio dira aurten aukeratu dituzten lekuak.

> PRESOAK

### Gaztañagak preso jarraitu beharko du, Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren zain

Jose Inazio Gaztañaga preso arrasatearraren harira, Askatasuna erakundeak jakinarazi du "Gaztañagak kartzelan jarraituko duela konstituzionalak epaia ebazten duen bitartean".

Gaztañagari Parot Doktrina delakoa aplikatu zioten. Helegitea jarri zuten, erabaki horren kontra. "Konstituzionalari zegokion sententzia atera arte Gaztañagaren zigorraren suspentsioaren gainean erabakitzea". Orain, Askatasunak jakinarazi du ez dutela onartu eskaera, Gaztañaga "oso delitu grabeengatik zigortua dagoelako eta oraindik 12 urte falta zaizkiolako".

**POLITIKA** > HAUTESKUNDEAK 07

# EAE-ANVko hautagaiek ekitaldia egin zuten

## Agurne Barruso alkategaiak EAE-ANVren presentzia ziurtatu zuen Udalbatza berrian

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

"Hauteskunde hauen ondoren, ezker abertzalea ate nagusitik sartuko da Udalera". Horixe agindu zuen Agurne Barruso Bergarako EAE-ANV alderdiko zerrendaburuak herenegun, zapatua, Herriko plazan egin zuten ekitaldi politikoan. Barrusok gaineratu zuen "lan talde sendo" baten jarduna izango duela EAE-ANVk, eta horren emaitzak laster ikusiko direla esan zuen.

Ekitaldia eguerdian hasi zen, plazan ipinitako agertokiaren inguruan. Gero eta herritar gehiago San Martin plazara batzen zihoazen bitartean, lehenengo, soinu eta pandero, txalaparta eta bertso emanaldiek berotu zuten giroa. Segidan hasi ziren hitzaldiak.

**HITZALDIAK**

Agurne Barruso EAE-ANVko alkategaiak egin zuen hitzaldi nagusia, eta Bergararako hautagai guztien babesa izan zuen.

Horren aurretik, Mikel Zubimendi Batasuneko mahai nazionaleko kidea igo zen agertokira, EAE-ANVrendako botoa eskatzeko. Kritika gogorrak bota zituen: hala, alderdien legez kanporatzea "herri honen aurkako atentatua" dela esan zuen.

Herritar askok jarraitu zuten ekitaldi politikoa.




**HAUTAGAIAK** Herriko EAE-ANVko zerrendakideak, zapatuko ekitaldian. GOIENKARIA



O.E.

## Roman Oiartzabal izena, kaleak

Mariaren Lagundiaren ondotik Ramon Maria Lili kalera bitartean egiten ari diren kale berriari Roman Oiartzabal izena jartzea proposatu du Tokiko Gobernu Batzordeak. Kale berria izen bera duen kalearen jarraipena dela pentsatzen duelako hartu du erabaki hori. Gaur, astelehena, osoko bilkura egingo dute eta udalbatzak erabaki hori berretsi beharko du. Kalea udarako zabaltzea espero dute.

> ELKARTASUN BRIGADAK

## Komite Internazionalistak bilera egingo du bihar, martitzena, udako brigaden berri emateko

Komite Internazionalistak taldeak brigadak antolatu ditu aurtengo udarako ere eta horien gaineko informazioa emateko bilera egingo dute martitzenean, maiatzak 22, kultura etxean. Kuba, Venezuela, Brasil, Kolonbia eta Palestina herrietara joango dira aurten brigadistak eta toki bakoitzean lan ezberdinak egingo dituzte: Kuban, adibidez, ikastetxe edo ospitale bat pintatuko dute eta Kolonbian eta Brasilen nekazariekin arituko dira elkarlanean. Palestinakoa, egoeraren arabera erabakiko dute. 18 urte izan behar dira gutxienez brigadetara joateko eta taldeak mugatuak dira. Martitzeneko bilera 19:00etan hasiko da.

**MENDEKOSTEAK** > TXOSNAK

# Txosna Batzordeak gertu du jai egitaraua

## Hiru egunetan, presoen aldeko herri afaria, bizikleta-skate poteoa eta musika izango dira

**L.K.** > BERGARA

Zortzigarren urtez, Mendekoste jaietarako bere eskaintza aurkeztu du Txosna Batzordeak. Joan den zapatuan jakinarazi zuten aurtengo egitaraua.

Hiru egunetarako ekintzak antolatu dituzte: hilaren 25ean, egubakoitza, Euskal Errepresaliatu Politikoen Eguna ospatuko dute. 20:00etan, kalejira egingo dute txosnetaraino, eta han, irekiera ekitaldia egingo dute. 22:00etan, presoen aldeko herri afaria izango da.

Domekan, hilak 27, 19:00etan, bizikleta-skate poteoa egingo dute, eta bizikletan etortzeko dei egiten dute. Azkenik, astelehen gauean, No Crew, Emon, Azkaiter Pelox eta Trikizio taldeen eta DJ Bullen emanaldiak izango dira.

Horrez gain, jaietako blusa salduko dute hainbat tabernatan, 5 eurotan.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Euren helburuak gogorarazi zituzten: "Helburua Bergarako jaien antolakuntzan herritarren parte-hartzea ahalbait eta handiena izan dadin lortzea da; ilusio eta erantzukizunez egiten diegu aurten ere dei jaien antolakuntzan zeresana eta zeregina duten eragile guztiei", esan zuten.



**ANTOLATZAILEAK** Txosna batzordeko kideek euren asmoak aurkeztu zituzten zapatuan. LEIRE KORTABARRIA

**OSASUNA** > PEDIATRA, BERRIRO LANERA

# Ana Rio, pediatra titularra, ekainean hasiko da berriro lanean

Horixe aipatzen da Osakidetzako arduradunek alkateari bidalitako gutunean

Pediatrari, euskara ikasten jarraitzeko baimena ez dio luzatu Osakidetzak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Atzerapenik ez bada, ekainean amaituko da azken hilabeteetan Oñatiko gurasoek bizi izan duten egoneza. Ekainean, Ana Rio, Oñatiko Osasun Zentroko pediatra titularra, lanera itzuliko da.

Horixe da Osakidetzako arduradunek Lourdes Idoiaga alkateari bidalitako eskutitzean jasotzen dena. Gutun hori, herrian zegoen kezka adieraziz, Udalaren izenean bidalitakoaren erantzuna da.

Halaber, Osakidetzako arduradunek Lourdes Idoiaga alkateari bidali zioten gutunean, Ana Rio pediatrari euskara ikasten jarraitzeko baimena ez diotela berrituko gaineratzen dute. Hortaz, pediatra ekainean hasiko da lanean. Hala, datorren ikasturtean ez da aurten egon den pediatra faltaren arazoa errepikatuko.

**EUSKARA IKASTEKO BAIMENA**

Osasun Zentroko pediatra titularrak, irailean, euskara ikasteko baimena eskatu zuen. Hala, ordutik, hartarako baimena izan du. Bitartean, pediatraren lekua familia mediku batek bete du, eta urtero izaten den errefortzurako laguntzailea ere familia medikua izan da.

Egoerak herritarren kexuak ekarri zituen. Egonezari aurre eginez, guraso talde baten ekimenez, sinadura bilketa egin zuten, abenduan hasita. Gabonetako haur parkean hasita, gurasoengana zuzendu zen, lehenengo eta behin, sinadura bilketa. Ondoren, bilketa herriko arlo guztietara zabaldu zen.

Bi eskaera nagusi egiten zituzten herritarrek sinadurak biltzeko orrian: pediatria zerbitzua titulazio hori duen mediku batek betetzeko eskaera, batetik, eta herrian eskaintzen den mediku zerbitzua eguneko 24 orduetara zabaltzea, bestetik.

**3.200 SINADURA**

Sinadura bilketak iraun zuen artean, 3.200 sinadura bildu ziren. Sinadura haiek Osasun Zentroko arduradunen esku utzi ziren. Handik, Tolosako Osakidetzako eskualdeko bulego nagusietara bidali zituzten.

Herritarrek egindako sinadura bilketarekin batera, udal ordezkariek eskaera idatzia bidali zuten Osakidetzara.



**LIBURUAK** Oñati Ezkerretik koalizioko kideak, liburuak banatzen. MIREIA BIKUÑA

**HAUTESKUNDEAK 07** > KANPAINAKO EKITALDIAK

## Oñati Ezkerretik koalizioko kideak kalera atera dira

Egubakoitzean eta zapatuan, triptikoak eta liburuak banatu zituzten herritarren artean

**M.B.** > OÑATI

Ezker Batuak, Zutik eta Aralarrek osatzen duten Oñati Ezkerretik koalizioko kideak kalera irten ziren asteburuan. Herritarrengana hurbildu gura izan dute. Hala, hainbat ekitaldi egin zituzten, egubakoitzean eta zapatuan.

**INFORMAZIOA BANATU**

Egubakoitz arratsaldean, Olakua auzoan, hauteskundeetarako osatu duten programa jasotzen duen triptikoak banatu zituzten.

Horixe bera egin zuten zapatuan, plazako merkatuan. *Beste udaletxe bat posible delako* leloa zeramaten esku-programak banatu zituzten.

Halaber, zapatuan bertan, haurrendako, gazteendako eta helduendako liburuak banatzeko, mahaia jarri zuten Foruen plazan.

**HAUTESKUNDEAK 07** > EAE-ANV-REN AURKEZPENA

# "Maiatzaren 27an erakutsiko dugu ideiei ezin zaizkiela harresiak eta oztopoak ipini"

Oñatiko EAE-ANV-k, eguenean, agerraldia egin zuen, hauteskundeetako programa azaltzeko

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko EAE-ANVko zerrendako kideek euren programa azaldu zuten eguenean egindako agerraldi baten. Legez kanpo geratu den plataforma izan arren, hauteskundeetako kanpainarekin aurrera jarraitzea erabaki dute.

"ASB alderdia eta EAE-ANVren zenbait zerrenda legez kanpo uztea oso erabaki larria da. Arduradun zuzena PSOE izan da, EAJren laguntzarekin", azaldu zuen agerraldian Marijo Altube zerrendaburuak.




**AGERRALDIA** Argazkian, Oñatiko EAE-ANVko zerrendako kideak. MIREIA BIKUÑA

"Bozka abertzale, gorri eta independienteak" baliagarriak direla azaldu zuen, " ardura politikoagatik, eta prozesu demokratikoari, irtenbide politikoari eta elkarrizketari bai esateagatik". Hala, hautes-mahaietan egongo ez diren EAE-ANVren boto-txartelak etxetik eramatea aholkatu zuten. Halaber, maiatzaren 27an, botoa ematera joan daitezen dei egin zien herritarrei. "Maiatzaren 27an, guztiok erakutsiko dugu ezin zaizkiela herritar batzuen ideiei harresiak ipini", esan zuten EAE-ANVkoek.

**PROPOSAMENAK**

Irakurketa politikoaren aurretik, Karmelo Arregik EAE-ANVren proposamenak azaldu zituen: "Gure ardatz nagusia Udala herriari zabaltzea da: ordezkaritza orekatua lortu, herritarrei erantzuna eman, erreferendumaren aldeko politika egin, eta udal ordezkarien soldata berraztertu, besteak beste".

EAE-ANVren programa sei ataletan banatzen da: hirigintza, ingurumena, kultura, aisialdia, gazteak eta euskara, gizarte ongizatea eta kirola, hain zuzen ere.

**KULTURA**

## Aita Madinaren omenezko txanpona

Oñati Filatelia taldeak zilarrezko 125 txanpon egitea erabaki du

**M.B.** > OÑATI

CECA Oñati Filatelia taldearen proposamena onartu du Udalak: Aita Madina jaio zeneko lehen mendeurrena bete dela eta, herriko txanpon eta zigiluzaleen elkarteak Zubillagako konpositorearen omenezko zilarrezko txanpona egitea, alegia. Proposamenarekin batera, Acuñaciones Euresport enpresaren aurrekontu eta ereduak ere auzkeztu zituzten.

**OÑATIKO ARMARRIA**

Aukeratutako txaponak Oñatio armarri eramango du alde batean, eta Aita Madinaren irudia, bestean. Zilarrezko 125 txanpon egingo dira.

Oraindik ez dute zehaztu Aita Madinaren omenezko txanponak non salduko diren.

**ESKORIATZA** > OSOKO BILKURA

# Ibarraundi fundazioaren estatutuak onartu dituzte

## Leintz ibarreko ondarea kontserbatzeko eta ezagutarazteko fundazioa da Ibarraundi

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Ibarraundi fundazioa eratuta dago, eta horren estatutuak onartu dituzte. Hala erabaki zuten eguenean Eskoriatzako udaletxean egindako ezohiko osoko bilkuran. Proposamenak sei boto jaso zituen alde, bat kontra eta beste bat abstenitu egin zen.

Hortaz, pauso berri bat eman du egitasmo horrek. Orain dela bi urte hasi ziren fundazioa sortzeko pausoak ematen, eta baikor dira horren bultzatzaileak. Orain arte, Eskoriatzako Udala, Eusko Ikaskuntza eta herriko hainbat enpresa daude proiektuaren atzean.

Fundazioaren egoitza Ibarraundi museoan jarriko dute, eta horren helburua da Eskoriatzako eta Leintz ibarreko ondarea kontserbatzea, ikertzea eta ezagutaraztea. Hala, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako Udalekin ere harremanetan daude eskoriatzarrak.

Eusko Ikaskuntzak eta herriko hainbat enpresek babesa eman diote; eta patronatuan esku hartuko dute eurek ere.




**IBARRAUNDITIK ABIATUTA** Ibarraundi museoa izango da Ibarraundi fundazioaren kokagunea. IKER BARANDIARAN



**IKASLEAK** Ikasleek hartu zuten osoko bilkuren aretoa. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > ESKOLETAKO AGENDA 21

# Energiaren eta uraren gaineko proposamenak

## Kurtzebarriko LH eta DBHko ikasleek uraren eta energiaren gaineko proposamenak aurkeztu zizkieten udal ordezkariei

**M.A./I.B.**> ARETXABALETA

Eguenean, Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eta DBHKo ikasleek udalbatzarraren aurrean aurkeztu zuten energiaren eta uraren gainean egindako lana.

Farolak, iturriak eta eraikin publikoak –kirol etxea, udaletxea, kultura etxea– aztertu, eta zer hobetu landu dute, Oñatiko Natur Eskolakoen laguntzarekin.

Udalbatzarraren aldetik, Arritxu Oliden alkatea eta hiru zinegotzi –Aralarko Joxe Anjel Antxia eta Felis Beltran de Heredia, eta Ezker Batua-Berdeak taldeko Jaime Mujika– egon ziren ikasleen azalpenak entzuten.

Alkateak zoriondu egin zituen, eta argitu zien farola berri egokiak jartzen dabiltzala, eta zaharrak hondatu ahala aldatuko dituztela.

Bestalde, udal eraikuntzei dagokionez, kirol etxe eta kultura etxe berriak egiterakoan iraunkortasun irizpideak kontuan hartuko dituztela argitu zuen Olidenek. Horrez gain, agindu zien proposamenak hirigintza batzordean eta osoko bilkuran aztertu eta erabakiko dituztela.

**ARETXABALETA**



MIRARI ALTUBE

# Bidegorria margotzen dabiltza

Hainbat aretxabaletar harrituta gelditu dira astean Udala herri barruko bidegorria margotzen dabilelako. Zalantza nagusia da bidegorria oinezkoendako edo bizikletendako egokitzen dabiltzan. Udalak lanak bukatu eta seinaleztapena jarri artean itxaron beharko dugu zalantza hori argitzeko.

**ESKORIATZA**



OLAZAR ELKARTEA

# Olazar erretiratuen elkartekoak, pozik, Italiatik bueltan

Olazar erretiratuen elkarteko kideek noizbehinka txangoak egiten dituzte, baina aurtengoa oso berezia izan da. Hala, denbora luzea igaro dute Italiara bidaia prestatzen, eta emaitzak halakoak izan dira. 40 lagun baino gehiagok astebete egin dute Italiako hainbat hiri ikusten: Florentzia, Venezia, Roma eta beste. Nekatuta, baina oso pozik etorri dira bidaiatik, eta gustura errepikatuko zutela agindu digute. Egunen baten euria egin zien arren, orokorrean, eguraldia lagun izan dute, eta oso ondo pasa dute.

**ELGETA** > HAUTESKUNDEAK 07

# Alderdiek euren egitasmo eta programen berri eman dute

Elgetako Abertzaleak, Aralar eta EAE-ANV alderdiek ekitaldiak egin dituzte; Aralar eta Abertzaleek euren kartelei egindako erasoak salatu dituzte




**EAE-ANV** Udal jarduera garden eta parte-hartzaile baten alde agertu ziren. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako EAE-ANVk barikuan egin zuen aurkezpen ekitaldia. Edurne Alberdi alkategaiak esan zuen herritarren parte-hartzea bultzatzeko batzordeak indartuko behar direla. Gainera, oso kezkatuta agertu zen Udalaren egoera ekonomikoarekin. Oso larria dela azaldu zuen eta horri bueltaematea ezinbestekotzat jo zuen.

**ARALAR**

Aralar-Independienteak zerrendako kideek zapatuan egin zuten agerraldia, herritarrak martitzenean egingo duten aurkezpenera gonbidatzeko. Ekitaldia 19:30ean egingo dute udaletxeko pleno aretoan. Oxel Erostarbe alkategaiak aurreratu zuen elkarlana dela herritarrei eskaintzen diotena.

**MARKEL OLANO, ELGETAN**

EAJko Aldun Nagusitarako hautagai Markel Olano zapatuan bildu zen Elgetako jeltzaleekin Espaloian. Euskararen erabilera indartzeko politikak bultzatuko dituela esan zuen. Kultura edukietan ere ahalegin handia egingo duela azpimarratu zuen. Lan horretan teknologia berrien garrantzia azpimarratu zuen.



**ARALAR-INDEPENDENTEAK** Elkarlana eskaini zieten herritarrei. L.Z.



**EAJ** Euskaraz eta kulturaz hitz egin zuten jeltzaleek Markel Olanorekin. L.Z.




**HAUTAGAIAK** EAE-ANVko hautagaiak, atzo, domeka. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > HAUTESKUNDEAK 07

# Herritarrei Udalean parte hartzen utzi gura die EAE-ANVk

Lau urteotarako programa eta zerrendak aurkeztu zituzten atzo, domeka

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Asier Agirre EAE-ANVko zerrendaburuak azken lau urteotako Udalaren jarduna "modu negatiboan" baloratu zuen: "Ez da izan parte hartzerik, eta EAJko eta EAko zinegotzi batzuek hartu dituzte erabakiak; herritarrek ez dute parte hartzeko aukerarik izan. Herritarrek ekimenak udaletxera eramatean, gehienetan atea itxita aurkitu dute", salatu zuen.

Jardun "negatibo" horren adibide moduan, azaldu zuen hirigintzan "eguneroko mantenu lanak desastre hutsa" izan direla eta, azpiegituretan ere, oso lan txikia egin duela Udalak. Urarekin eta argindarrarekin zenbait auzotan izan dituzten arazoak ere aipatu zituen.

**"ARAMAIO BERRIA"**

Etorkizunari dagokionez, berriz, ikuspuntu positiboagoa erakutsi zuen Agirrek: "Jende berria aurkeztu dugu, lanerako gogoz eta indartsu. Gainera, atzetik ere jende mordoa dago laguntzeko gertu. Hala, udaletxeko ateak zabaldu eta jendeari parte hartzen utziko diogu".

Programari dagokionez, zera dio: "Programa txukuna aurkeztu dugu; hor ikusten da herritarrak gurekin daudela". Edukiari dagokionez, berriz, arloz arloko ikuspuntuak landu dituztela azaldu zuen Agirrek.

Bukatzeko, hautagaiak gaineratu zuen "Aramaio berria" egingo dutela, "egin daitekeelako eta jendea gertu dagoelako Aramaio berria egitera".

**ANTZUOLA**

# Herriko Plaza datozen asteotan zabalduko dute guztiz

Antzuola erreka Herriko plazatik bideratzeko lanak eta urbanizazio lanak bukatzear daude. Eusko Jaurlaritza arduratu da lan horietaz. Orain, Udalaren ardura izango da hiri altzariak jartzea.

Bi zatitan banatuko dute plaza; udaletxe alderako zatia oinezkoendako izango da, eta bestea gune mistoa izango da. Bi gune horiek banatzeko elementu berdeak erabiliko dituzte, aldameneko irudi birtualean ikus daitekeen moduan. Datozen asteetan zabalduko dute plaza.



GOIENKARIA

> LEINTZ GATZAGA

## Sorginak taldeak atzeratu egin du udaberriko bidaia

Udaberrian egin gura zuen urteroko bidaia Sorginak emakume taldeak, baina hainbat hitzordu dituzte datozen asteotan gatzagarrek, eta irailera atzeratzea erabaki dute. Data zehatza ez dute jarri, baina, seguru asko, laugarren aste bukaeran izango da, irailaren 21etik 23ra bitartean, Andramari jaiak eta erretiratuen eguna pasatu ostean.

**HONDARRIBIARA**

Erretiratuek ere urtero egiten dute bidaia udaberrian, eta ez dute hutsik egingo. Ekainaren 1ean, egubakoitza, Hondarribia aldera joango dira. Izenemate epea hilaren 27an bukatuko da, eta Pedro Mari Elkorobarrutiari jakinarazi behar diote bazkideek.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Mondrak eta Aloñak berdindu egin zuten Atxabalpen **> 19**



**> ESKUBALOIA**
Bergarak 35-26 irabazi zuen Urdanetaren aurka zapatuan **> 20**



**> SASKIBALOIA**
Candyk Gipuzkoako lehenengo mailan jokatuko du **> 20**



**AZKEN LEHIA** Arrasatek eta Ordiziak jokatu zuten, zapatuan, Garagartzako azken partidua; argazkian, Ordiziako jokalaria, alboko sakea egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA ETA ERRUGBIA** > DENBORALDI BERRIRAKO, ZELAI BERRIAK

# Atxabalpen eta Garagartzan azkeneko partiduak jokatu dira

Atxabalpen, 1986ko maiatzean jokatu zen lehenengo partidua; Mondrak eta Ordiziak jokatu zuten

Errugbi taldeak 16 denboraldi eman ditu Garagartzako zelaian jokatzen, 1991z geroztik

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Aste bukaeran jokatu dira Atxabalpen eta Garagartzan azken partiduak, Mondrak eta Arrasate Errugbi taldeak, etxean, denboraldiko azkeneko partidua jokatu dute-eta. Hortaz, agur esan diete zelai horiei. Izan ere, datorren denboraldiko norgehiagokak Mojategin jokatuko dituzte.

**ATXABALPE**

1986ko maiatzean jokatu zen lehen partidua Atxabalpe futbol zelaian; 1985-86 denboraldiko azken norgehiagoka zen. Partidu hartan, Mondrak eta Ordiziak neurtu zituzten indarrak, eta partidua berdinketarekin amaitu zen: 2-2 izan zen azken emaitza.

Hortaz, Mondragon Futbol Elkarteko taldeek 21 urtetan jokatu dituzte txapelketako partiduak Atxabalpe futbol zelaian.

Urte hauetan, Mondrak urte onak bizi izan ditu, eta baita txarrak ere. Arrasateko talde nagusia preferente mailan, hirugarren mailan eta lehenengo erregional mailan lehiatu da. Halaber, bigarren B mailara igotzeko promozioa jokatu zuen, Zaragozako Utebo, Kantabriako Escobedo eta Nafarroako Egues taldeen aurka.

Puntako partiduak ere jokatu dira Atxabalpen. Cesareo Gabarain apaizaren omenezko lehia jokatu zuten Realak eta Real Madrilek. Gabarain Real Madril taldeko kapilaua zen. Chendo eta Michel ziren, besteak beste, taldeko hartako jokalariak.

## Irailetik aurrerako kirol hitzorduak Mojategi kiroldegi berrian jokatuko dira

Arrasatek punta-puntako kirolgunea estreinatuko du laster: belar artifizialeko futbol eta errugbi zelaiak, atletismo pistak, tenis, paddle eta skatean ibiltzeko guneak... egokitu dira gune berrian. Azken horiek pilotaleku parean jarriko dituzte. Halaber, errugbi eta futbol zelaiak harmailarekin banatuta egongo dira; kirolgune berriko taberna ere, harmailetan egokitu dute. Bederatzi mila lagunendako tokia dago futbol zelaiko harmailetan. Bestalde, atletismoko txapelketetan, epaileek eroso lan egiteko, kontrol dorre bat ere egokitu dute. Horietaz gain, beste hainbat kirol jarduera egiteko aukera izango da Mojategiko kirolgunean.

Herriko futbol eta errugbi taldeek badakite irailean hasiko den denboraldiko partiduak Mojategin jokatuko dituztela.

**GARAGARTZA**

Arrasate Errugbi taldeak 1991. urteaz geroztik jokatzen du Garagartzan. Zapatuan jokatu zuten azkeneko partidua zelai hartan: 42-6 nagusitu ziren Ordiziaren aurka, Garagartzari agur esateko modu bikaina.

Hamasei urte eman ditu Arrasate Errugbi taldeak Garagartzan; irailetik aurrera, belar artifizialeko zelaian jokatu dute. "Faltan igarriko dugu Garagartza. Aurkariei oso zail egiten zaie bertan jokatzea", azaldu zigun Unai Lazkano errugbi jokalariak. Garagartzako partiduak jokatzea "ez da samurra izan, zulo asko dituelako zelaiak. Batzuetan, belarra oso altu egoten zen".

Irailetik aurrera, Mojategin jokatuko dute. "Pozik gaude aldaketarekin, batez ere, instalakuntzak, aldagelak, hobeak izango direlako. Edozelan ere, Mojategira joan arte, ez dugu sinistuko", esan ziguten errugbi taldekoek.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

# Aloña Mendi Ki




**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Unai Arabaolaza, Iñaki Mugarza, Aitor Umerez, Mikel Lizarralde, Xabier Arnaiz, Julen Arkauz, Andoni Urrutia, Oier Olalde, Ander Altube, Iker Mugarz
**Beheko ilaran, ezkerretik hasita:** Mikel Nieto, Borja Corrales, Iker Arkauz, Aritz Anduaga, Iñigo Madina, Iker Alberdi, Jon Arkauz, Mikel Fernandez, Aritz Zabaleta eta Xabier Aiastui.

Servimasa
URKIN loradenda
aldekoa LOGISTICA
URTIAGAIN JATETXEA

# rol Elkartea 06-07 (Txirrindularitza saila)




a, Julen Elkoro, Iñaki Madinabeitia, Iñaki Igartua, Andoni Urteaga eta Garikoitz Baños.

LIZARRALDE KIROLAK
CONSTRUCCIONES UNEREZ S.L.
IZARRAITZ TABERNA

# AZKEN JOERAK BETAURREKOETAN GUREAN



Ray Ban
Elle MacPherson



Gucci
Victoria Beckham



Dior
Sharon Stone



Chrome Hearts
Elton John



Cavalli
Marta Sanchez



Jee Vice
Elsa Pataky



Ray Ban Wayfarer
Siena Miller



Marc Jacobs
Nicole Richie



Initium
Liam Gallagher





Tom Ford
Angeline Jolie, Jennifer Aniston eta Rania de Jordania



ITZIAR UGARTE
**OPTIKA**

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87
Eskola Politeknikoaren ondoan



**LEHIA** Amutxastegi eta Arregi, partiduko momentu baten.

JOSETXO ARANTZABAL

**PREFERENTA MAILA** > DERBIA ATXABALPEN

# Puntu banaketa Mondra eta Aloñaren artean

Etxeko taldea aurreratu zen markagailuan, Muruak egindako golari esker

Oñatiko taldeak bigarrenean berdindu zuen; Robertok egin zuen gola

MONDRA
**1-1**
ALOÑA MENDI

**Mondra** (hasierako hamaikakoa) > Ander, Andoni, Kepa, Loiti, Iker, Ruben, Keixi, Oier, Murua, Arkaitz eta Julen.

**Aloña Mendi** (hasierako hamaikakoa) > Iñigo, Iker, Astola, Aitor, Jokin, Jon, Xabier, Julen, Rober, Unai eta Maiztegi.

**Bestelakoak** > Epaileak ez zuen arazorik izan; lan ona egin zuen.

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Preferente mailako denboraldiko azken derbia jokatu zuten zapatuan, Atxabalpen, Mondrak eta Aloñak.

Norgehiagoka emozioz beterikoa izan zen, derbi guztiak bezala. Hala ere, jokoa ez zen ikusgarria izan. Hala, talde bakoitzak gol bat egin ondoren, puntuak banatu zituzten lehia amaieran; Mondrak, orain, 50 puntu ditu, eta Aloñak, 40.

Jardunaldi bakarra falta da preferente mailako txapelketa amaitzeko. Mondrak, datorren urtean, hirugarren mailan jokatuko duen Zarautz hartuko du; Aloñak, aldiz, Idiazabalen aurka jokatuko du Azkoagainen.

**HASIERAKO 20 MINUTUAK**

Mondrak eta Aloñak zapatuan jokatu zuten lehiaren hasierako minutuetan, etxeko taldea izan zen nagusi. Igor Gordobilen taldea ondo kokatuta atera zen zelaira, eta, taktikoki, minutu onak jokatu zituen. Bada, aukera gutxi sortu zituzten bi taldeek.

Lehen zatiko azkeneko 15 minutuetan ikusi ziren gol aukera garbienak. Hala, Julen Herizek abagune garbia izan zuen 31. minutuan; baina azken unean, Astolak baloia kornerrera bidali zuen. Bi minutu eta gero, Astigarragak falta jaurtiketa kanpora bidali zuen. Halaber, Aloñako jokalari Elgarrestak lehen gola egiteko bidea izan zuen burukada batekin. Bada, etxekoak izan ziren lehen gola egin zutenak. 40. minutuan, Jon Muruak sakonean jasotako baloia Aloñaren atean sartu zuen.

Halaber, atsedenaren aurretik, bi taldeek gola egiteko aukera izan zuten; baina, Muruaren errematea atezainak geratu egin zuen, eta Idigorasen jaurtiketa kanpora joan zen.

**MONDRA, BEHERA**

Bigarren zatiaren hasieran, zaleak oraindik euren tokietan eseri barik zeudenean, egin zuen Aloñak berdinketaren gola. Roberto Idigorasek erremate ona egin zuen, 53. minutuan.

Berdinketarekin, oñatiarrek aurrera egin zuten, garaipenaren bila; eserlekutik jasotako animuekin, eta harmailetan zeuden zaleen txaloekin, bigarren gola egiteko ahalegina egin zuten.

Halaber, etxeko jokalariek zelaian zuten tokia galdu egin zuten, eta baloia Aloñak menderatu zuen. Horregatik guztiagatik, bigarren zatiko minuturik gehienetan, tentsioa eta emozioa izan ziren nagusi Atxabalpen.

Amaieran, bi taldeetako entrenatzaileek berdinketa justua izan zela azpimarratu zuten.

ESANAK

"Lehenengo zatian, ondo kokatuta irten gara; bigarrenean, ez hainbeste. Hortaz, berdinketa justua dela esango nuke"

**Igor Gordobil** >
Mondrako entrenatzailea

"Trintxerperen aurka taldeak izandako jarrera asko hobetu dugu gaurko derbian; alde horretatik, oso pozik nago"

**Aitor Orueta** >
Aloñako entrenatzailea

**emaitzak eta sailkapenak**

PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **68** | 33 |
| 2. **Hernani** | **61** | 33 |
| 3. **Zestoa** | **56** | 33 |
| 4. **Berio** | **52** | 33 |
| 5. **Mondra** | **50** | 33 |
| 6. **Ordizia** | **50** | 33 |
| 7. **UDA** | **50** | 33 |
| 8. **Trintxerpe** | **50** | 33 |
| 9. **Anaitasuna** | **45** | 33 |
| 10. **Touring** | **41** | 33 |
| 11. **Aloña Mendi** | **40** | 33 |
| 12. **Aurrera** | **36** | 33 |
| 13. **Hondarribia** | **36** | 33 |
| 14. **Idiazabal** | **36** | 33 |
| 15. **Martutene** | **33** | 33 |
| 16. **Pasaia** | **32** | 33 |
| 17. **Mutriku** | **31** | 33 |
| 18. **Urola** | **24** | 33 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Trintxerpe-Zarautz | 4-0 |
| Mondra-Aloña Mendi | 1-1 |
| Idiazabal-Zestoa | 0-1 |
| Berio-Aurrera | 0-1 |
| Anaitasuna-Ordizia | 0-0 |
| Touring-Hondarribia | 1-1 |
| Mutriku-Hernani | 3-1 |
| Urola-Pasaia | 3-0 |
| Martutene-UDA | 1-2 |

**Hurrengoak**

UDA-Trintxerpe
Zarautz-Mondra
Aloña Mendi-Idiazabal
Zestoa-Berio
Aurrera-Anaitasuna
Ordizia-Touring
Hondarribi-Mutriku
Hernani-Urola
Pasaia-Martutene

BESTELAKOAK

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-BTLS | 5-1 |
| Antzuola | atsedena |
| Elgeta-Gazteak | 2-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| UDA-Mondra | 0-0 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Luberri-BTLS | 0-2 |
| Vasconia-Mondra | 3-2 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi UDA- Aloña Mendi | 5-2 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Beasain | 4-1 |
| UDA-Kostkas | 0-0 |
| Anaitasuna-Mondra | 2-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Amaika Bat-Bergara | 0-7 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-UDA B Arizmendi | 0-2 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Kostkas-UDA Arizmendi | 0-1 |
| Bergara-Real Union | 1-2 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Sanse | 0-2 |
| Beasain-Aloña Mendi | 2-1 |

**EMAKUNEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA: KOPA**

| | |
|---|---|
| Oiartzun-Arizmendi UDA | 4-5 |

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

# Tentsio handiko lehia irabazita, igoera lortzea gero eta gertuago du Bergarak

## Bi norgehiagoka besterik ez dira geratzen igoera fasea amaitzeko, Usurbilen eta Alipendiren aurkakoak

BERGARA
**35-26**
URDANETA

**Bergara** > Kapelastegi, Uribe (2), Ugalde (4), Sanchez (7), Najera, Garcia (5), Plazaola (7), Manuel (3), Zabaleta (2), Larrañaga (2), Pozo, Zangitu, Orgaz eta Agirre (2).

**Urdaneta** > Alustiza (1), Llonin, Beurko (7), Uriarte (1), Fernandez (5), Otxoa, Ameca (2), Villanueva (4), Gutierrez (1), Ortega (1), Mujika, Del Pozo, Coreaga (2) eta Torres (2).

**Golak** > 2-2, 5-5, 8-5, 9-9, 12-11, 14-11. Atsedena. 17-12, 22-16, 25-19, 29-22. 32-24, 35-26.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Bergarak bigarren postuan jarraitzen du, zapatuan, Urdanetaren aurka irabazita.

Etxeko taldea nagusi izan zen Labegaraietako lehian. Bada, zapatuko garaipenarekin, Bergarak igoera txartela lortzeko lehian jarraitzen du.

**BIGARREN ZATIAN, NAGUSI**
Lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen: 20. minutuan, 9-9 erakusten zuen markagailuak. Azken minutuetan, baina, etxeko taldeak 5-2ko partziala egin zuen, markagailua 14-11n utziz. Bigarren zatian, markagailuko errenta handitu besterik ez zuten egin mahoneroek.

Zapatuan, Bergarak, defentsan, lan ona egin zuen. Horri esker, tentsio handiko lehia irabazi zuten mahoneroek. Orain, bi norgehiagoka besterik ez dira geratzen igoera fasea amaitzeko: datorren astean Usurbilen jokatuko dutena, eta, azkena, etxean Alipendiren aurka izango dena.


**HEGALEKO JOKOA** Bergarak ondo aprobetxatu zituen hegaleko jaurtiketak. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > DENBORALDIKO AZKEN LEHIA

# Bergarak Gipuzkoako lehenengo mailan jokatuko du

CANDY BERGARA
**61-71**
ORDIZIA

**Candy Bergara** > Aizpurua, Blazquez (2), Ortiz (13), Morais (8), Arteaga (12), Murillo (9), Beiztegi (3), Ugarte, Olaetxea, Iñarra (2), Fernandez eta Herzog (10).

**Ordizia** > Aldanondo (13), Gonzalez (4), Yerbe (14), Barandiaran (7), Bea, Perez de Mendiguren (13), Fernandez, Mangas (7), Olano eta Berzosa (11).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 18-15. Bigarren laurdena: 32-32. Hirugarren laurdena: 49-47. Laugarren laurdena: 61-71.

**A.E.** > BERGARA
Bergarako senior mailako saskibaloi taldeak mailaz igo du: datorren denboraldian, Gipuzkoako lehenengo mailan jokatuko dute bergararrek. Orain dela bi aste lortu zuten igoera mahoneroek; hala, zapatuan jokatutako partiduan, ezer ez zegoen jokoan. Hori dela eta, etxeko taldeak lasai jokatu zuen, tentsio barik, eta ezin izan zuten garaipen batekin agurtu denboraldia.

**MARKAGAILUAN, AURRETIK**
Zapatuko lehian, etxeko taldeak ezer gutxi egin zuen. Hala ere, lehenengo hiru laurdenetan, markagailuan aurretik izan ziren bergararrak. Hala, lehenengo laurdena 18-15 amaitu zuten. Bigarrenean, Ordiziak lehia berdindu egin zuen, eta hirugarrenean, berriro ere, Bergara bi puntu aurreratu zen markagailuan (49-47).

Azken laurdenean, baina, etxeko taldeak behera egin zuen, eta Ordiziak 10 puntuko tartea zabaldu zuen markagailuan. Azkenean, Bergarak galdu egin zuen denboraldiko azken lehia. Hala ere, jokalariek gogoz ospatu zuten aurtengo denboraldiko lana.


**JAURTIKETA** Gorka Blazquezek bi puntu lortu zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak**

**ESKUBALOIA**

| | |
|---|---|
| **GIPUZKOAKO KOPA, LEHEN ETA BIGARREN MAILA NAZIONALA** | |
| Elgoibar-Ford Mugarri | 29-30 |
| **GIPUZKOAKO KOPA, NESKAK** | |
| Verkol Aloña-Leizaran | 29-15 |
| **EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA** | |
| Bergara-Urdaneta | 35-26 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Arrasate | 28-30 |
| **GAZTE NESKAK, KOPA** | |
| Verkol Aloña B-Zarautz | 25-19 |
| Verkol Aloña B-Arrate | 25-28 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Bidasoa Irun-Aloña Mendi | 31-31 |
| Gatz Museoa Jakion | atsedena |
| **KADETE NESKAK** | |
| Bera Bera-Arrasate | 28-6 |
| Verkol Aloña-Zarautz | 14-22 |
| Leizaran-Verkola Aloña | 27-7 |

**SASKIBALOIA**

| | |
|---|---|
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Kevian Sport-Aloña Mendi | 59-37 |
| Candy-Ordizia | 61-71 |
| Donibane-Ointxe Arrasate | 61-76 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Lazao-Mugarri Alkesa | 74-61 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| MCM-Kortazar taberna Txirrita | 48-36 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Aloña-Bergara | 35-78 |
| Construcciones Alkesa-Tolosa | 67-58 |
| Ford Mugarri-Gros Xake | 69-53 |

**BERGARA**

# Eskola kiroletako umeak ederto ibili ziren piraguetan zapatuan

**UMEEK EZ ZUTEN HUTSIK EGIN** Eguraldia nahiko kaskarra bazen ere, umeak Labegaraietara hurbildu ziren lagunartean kirola egiteko

**URETAN, POZIK** Gogotik ibili ziren errekan piraguekin batetik bestera, Bergarako piragua taldeko kideek lagunduta, betiere

**BESTELAKO JOLASAK ERE** Piraguetan ibiltzeaz gain, bestelako jolasetan aritu ziren umeak, eta denbora pasatuta, elkarrekin txandakatu ziren taldeak

**KOLDO CARRILLO** > BERGARA

Pasa den asteburuan, ez zuten kalerik egin eskola kiroletako umeek, eta zapatu goiza Labegaraietako kiroldegian eman zuten. Oraingoan, piraguetan ibiltzeko eta eskalada egiteko aukera zeukaten haurrek, baina arazo batzuk zirela medio, eskalada bertan behera utzi eta hockey eta futbolarekin ordezkatu zuten.

09:30ean, Antzuola eta Munichen taldeei egokitu zitzaien txanda. Ume batzuk piraguetan zebiltzan bitartean, beste batzuk hockey-ean ibili ziren jolasean, eta gero, txandakatu egin ziren. San Martineko haurrak ere bertan izan ziren. Hockeyean ere, gustura ibili eta modu berezian atsegin dutela ikusi genuen, nahiz eta piraguetan sartzeko irrikitan zeuden guzti-guztiak, ia salbuespenik gabe.

10:45ean, Mariaren Lagundia eta Aranzadi taldeetako neska-mutilei egokitu zitzaien txanda, eta horiek ere gogotik disfrutatu zuten, bai piraguetan eta baita futbolean ere. Azkenean, alai eta lagun-taldean itzuli ziren umeak.

**PIRAGUEKIN ERREKAN**

Bergarako piragua taldeari esker, errekako uretan ibili ziren umeak batera eta bestera. Nahiz eta gehienentzat lehenbiziko aldia ez izan, oso gustura zeuden errepikatzeko zeukaten aukerarekin, eta batzuk zalantzatiago, beste batzuk ausartago, guztiak murgildu ziren uretan. Azkenean, denak pozik irten ziren uretatik, pixka bat umel izan bazen ere.



K.C.

**San Martin.** Ikerrek, Jonek, Kepak, Mikelek, Josebak, Anderrek, Unaik eta Julenek osatzen dute taldea.



K.C.

**Antzuola.** Endikak, Andonki, Mikel M.-k, Antxonek, Gorkak, Ikerrek, Josuk, Mikel J.-k, eta Jonek osatzen dute taldea.



K.C.

**Aranzadi eta San Martingo neskak.** Lierni, Ainhoa E., Ainhoa M., Nekane, Ainhoa S., Eukene, Maider eta Jone.



K.C.

**Mariaren Lagundia.** Paul, Unai, Aitor, Eneko, Mikel R., Jon, Borja eta Mikel L. dira taldekideak.

## LEHENBIZIKO ALDIA PIRAGUETAN?



**Gorka eta Mikel** > Antzuola

Bikote honentzako, ez da piraguetan dabiltzan lehen aldia, "beste aldiren baten ere ibili gara". Bustitzeko arrisku txikia dagoela zioten; dena dela ere, "binakako piraguetan ibiltzea nahiago dugu bakarka ibiltzea baino", zioten biek segurtasunez.



**Antxon** > Antzuola

"Ni bakarkakoan ibili naiz gaurkoan", eta gustura zegoela adierazi zuen, gainera. "Frantziako Loiran egon nintzen behin piraguekin", zioen Antxonek, "eta baita beste sekula ere. Ondo dago".



**Oier eta Iker** > San Martin

Oier eta Ikerrentzat ere ez zen lehenbiziko aldia piraguetan. "Gaurko eguna ona da, piraguak eta hockeya ditugulako aukeran", zioten biek. Piraguetan berriro errepikatuko luketen galdetuta, "bai, berriro ere", erantzun zuten ziurtasunez eta gogoz.



**Joseba eta Kepa** > San Martin

Bikote honek ezagutzen zuen tokia; "joan zen urtean egon ginen hemen", adierazi zuten. "Oso gustura ibili gara gaur uretan", zioten Josebak eta Kepak, eta zalantzarik gabe, "hurrengo batean ere gustura asko etorriko ginateke hona", esaten zuten.



**Ainhoa M.** > Aranzadi

"Sekula ibili naiz, bai, piraguetan", esaten zuen Ainhoak, baina gogoak zituen uretan sartzeko. "Lagunekin, ziur ondo pasatuko dugula", zioen, ibai ertzera hurbiltzen zihoan bitartean.

# Debagoieneko **WEBGUNEAK**




**AHOLKULARITZAK**
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

**ARETOAK**
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ARRANDEGIAK**
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

**ASEGURUAK**
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

**AUTO – KONTZESIONARIOAK**
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

**BIDAIA AGENTZIAK**
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

**EGUZKI OIHALAK**
**TOLDOS LETE**
**www.toldoslete.com**

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
**SETALDE**
www.setalde.com

**ELKARTEAK**
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

**ERAIKUNTZAK**
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

**ESTETIKA ZENTROAK**
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

**FISIOTERAPIA ZENTROA**
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

**GARAJEAK / KONPONKETA**
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

**GARBIKETAK**
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

**GOZOGINTZA EKOLOGIKOA**
**ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HARATEGIA**
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HAUR PARKEAK**
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com

**HOTELAK**
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

**IKASTETXEAK**
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

**ILE-APAINDEGIAK**
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INDUSTRIA HORNIDURAK**
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

**INFORMATIKA**
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
**HARRILUR**
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

**JANARIAK**
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

**KALAMUA**
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

**KIROL DENDAK**
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info/

**KONGRESU ETA BILKURAK**
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

**LANDETXEAK**
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

**LEIHOAK**
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OKINDEGIAK**
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

**OPARIAK**
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA**
**GARAIA OSTALARITZA**
**HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

**PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA**
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

**SUKALDERAKO ALTZARIAK**
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK**
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA… TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

**UMEENDAKO ARROPA**
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

**ZERBITZU DIGITALAK**
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEAK**
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**> BOLUNTARIOAK**
Euskal Herria Zuzenean jaialdirako boluntario bila **> 24**



**> JONAH SMITH**
Entzule kopuru polita batu zen atzo Jonah Smith-i entzuteko **> 24**



**> JAIAK**
Oñatiko Errekalde auzoko jaietako egubakoitzeko kontzertua **> 26**



**> IKASLEAK**
Bergarako Musika Eskolakoen Udaberriko kontzertua **> 27**

**AZOKA** > ERDI AROKO GIROA ARRASATEN

# Arrasateko kaleak Erdi Arora bueltatu dira asteburuan

## GUTXIAGO
Erdi Aroko Azokaren 4. edizio honetan, iaz baino postu gutxiago jarri dituzte

## EUSKARA
Aurten, kartel asko, behintzat, euskaraz ere bazeuden, aurreko urteetan ez bezala








**GARAIKO JANTZIAK** Postuetako artisauak eta kale animazioak, Erdi Aroko garaian sartuta. EDURNE BURGAÑA

**EDURNE BURGAÑA** > ARRASATE
IV. Arrasateko Erdi Aroko Azoka egin zuten joan den asteburuan. Iturriotzen, Erdiko kalean, Seber Altuben eta Herriko plazan, bizi garen garaia alde batera utzi eta, bi egunez behintzat, Erdi Arora bueltatu dira herritarrak.

**SALTOKIAK, KALEAN**
Era guztietako saltokiak ikusteko aukera egon da Arrasaten. 90 bat jarri dituzte; horietatik batzuk, debagoiendarrak, eta beste batzuk, kanpotik etorritakoak. Tartean, postuan bertan lan egiten zutenak ere bazeuden, eta horrela, bertara joandakoek artisauen lana nola egiten den gertutik ikusteko aukera eduki zuten.

Usain eta koloreek erdiguneko kaleak hartu zituzten: ukendu naturalak, jatekoa, usaindun lorak, esentziak... denetarik.

Udalak antolatzen duen ekimena da, baina Pegasus enpresa katalanak darama koordinazioa eta kudeaketa. Horrek herritarren artean desadostasunak sortu zituen, batez ere, euskarak zuen tarte txikiagatik. Hala ere, aurten, kartel asko behintzat euskaraz ere ipini dituzte.

Idoia Ibañez artisaua da, eta azokaren gainean bere iritzia eman du: "Arrasaten feria hori egiten den laugarren urtea da aurtengoa, eta ez da aldatu. Lehenengo urtean, Pegasus taldekoak etorri ziren. Bigarrenean, talde euskaldun bat; baina, tabernetan-eta, plastikozko edalontziak erabiltzen zituzten, eta hori ez dator bat Erdi Aroko ikuspegiarekin. Handik aurrera, berriro ere Pegasus taldekoak etorri dira, eta hori aldatzea gustatuko litzaidake; datorren urtean, Naparbidean taldea etortzea ondo legoke. Hemengoak dira, eta artisautza zaintzen dutenak, gainera".

Izan ere, artisautzaren kontzeptua galtzen doalakoan dago Ibañez: "Artisautza ez gabiltza zaintzen. Azoketan, artisautza saltzen dela suposatzen da, baina ez da egia. Serieko produktuak ere badaude, tartean; horrekin, bezeroa nahasten dugu, eta geure burua kaltetzen ari gara. Artisautza zaindu beharra dago", dio.

**EGURALDIAREN ERAGINA**
Eguraldia faktore garrantzitsua izaten da kalean antolatzen den edozein ekintzatan. Izan ere, asko aldatzen da egoera eguraldi ona egin edo eskuan aterkia eduki behar bada. Joan den asteburuan, euri askorik ez du egin Arrasaten, baina zerua hodeituta egon da. Horrek bere eragina eduki du. Dunixe Royo artisauak azaldu duenez, "aurten sekula baino jende gutxiago eta postu gutxiago ikusi ditut Arrasaten. Eguraldiak eragin handia du horretan; baina, akaso, jendea aspertzen hasi da azokarekin. Ez dakit ziur zer gertatzen den, baina kontua da aurten jende gutxi ibili dela".

Postuek Arrasateko kaleak betetzen zituzten, baina ez ziren bakarrak. Kale animazioak ere tarte handia edukitzen du Erdi Aroko azokan. Doke antzerki taldekoek, adibidez, *Ezkontza* antzeztu zuten. Josemari Velez de Mendizabalek XVI. mendeko ezkontzen gainean idatzitako antzezlana da.

Musikak ere kaleak alaitzen ditu. Gaitak eta danborrak eskuan hartuta, goiz-goizetik ibili ziren talde batzuk Arrasateko kaleetan barrena. Kale antzerkia egiten zutenak ere bazeuden, eta horrek jendea hurbiltzen la23guntzen du.

Baina asteburua pasatu da, eta Erdi Aroa alde batera utzi eta berriro ere XXI. mendera bueltatu dira Arrasateko kaleak.

**JAIALDIAK** > EUSKAL HERRIA ZUZENEAN JAIALDIA

# Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila dabil Jardun elkartea

Parte hartu ahal izateko, ekainaren 15a da izena emateko azkeneko eguna

Ekainaren 29an, 30ean eta uztailaren 1ean da jaialdia, Xiberuako Idauze Mendin

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

Euskal Herria Zuzenean jaialdia ekainaren 29an hasi eta uztailaren 30ean amaituko da. Bergarako Jardun euskara elkarteak, Topagunea euskara elkarteen federazioaren bidez, egitasmoan parte hartzeko aukera zabaldu nahi die herritarrei. Iaz 60 laguntzailetik gora bildu zituzten, eta aurten ere jende bila dabiltza. Izena emateko azken eguna ekainaren 15a da. Matrikulak 28 euro balio ditu; asegurua, garraioa, pentsio osoa eta alojamendua barruan daude.

**BALDINTZAK**

Laguntzaile bezala izena emateko, baldintza bi bete behar dira: ekainaren 15ean 17 urte beteta edukitzea, eta, 18 urte baino gutxiago edukiz gero, gurasoen baimen agiria aurkeztea.

Laguntzeko gogoa edukitzea eta jai giroan lagun berriak egin nahi izatea dira eskatzen dutena.



**LAGUNTZAILEAK** 2003an, Euskal Herria Zuzenean jaialdira lanera Debagoienetik joan ziren gazte batzuk. GOIENKARIA

Izan ere, laguntzaileek festibalaz gozatzea laguntza ematearekin tartekatzen dute. Asteburuko egonaldia da, eta lanerako lau txanda egingo dituzte, parkinga antolatu, txosnan zerbitzari lanak egin, otorduetarako mahaiak jarri eta zaborrak biltzeko.

**HISTORIA PIXKA BAT**

Baina, lanean ez daudenean, festibalaz gozatzeko aukera dute laguntzaileek: kontzertuak, hitzaldiak, ikastaroak, dantza, musika eta beste hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera dute jaialdian.

EHZ elkartea 1992an sortu zen, euskal kultura sustatzeko eta euskal musika bultzatzeko. Festibala 1996an sortu zen.

Gazteak eta laguntzaileak dira festibalaren arima. Festibala ospatzen den asteburuan, 800 laguntzaile aritzen dira lanean.

## Jonah Smithek 90 lagun batu ditu gaztelekuko kontzertuan

Jonah Smith estatubatuarra Oñatiko gaztelekuan aritu zen atzo. Soul musika gustuko dutenentzako, aukera bikaina izan zen. Izan ere, soula oinarri hartuta, jazz, rhythm-and-blues eta rock kutsua dute bere abestiek. Hori horrela, soul modernoaren erreferentetzat hartu dute adituek. 90 lagun agertu ziren kontzertura, eta gaztelekukoak pozik: espero zuten kopurua zen.

Ahots magnetikoa eta hunkigarria dauka Smithek. Kantuen bitartez espresatzen da abeslari, piano-jole eta konpositorea. Horixe egin zuen Oñatin ere *Killing time, Both sides, Stay awhile* eta *Little back angels* bezalako abestiekin.




JOSETXO ARANTZABAL

**GITARRA IKASTAROA**

## Izena emateko azken eguna, gaur

Ikastaroa etzi hasi eta sei aste iraungo du; eguaztenetan da, 19:00etan

**E.B.** > BERGARA

Jardun euskara elkarteak gitarra klasiko edo espainiarraren ikastaroa antolatu du. Izena emateko azken eguna gaur da. Horretarako, nahiko da Jarduneko telefonora deitzea: 943 76 36 61.

**GITARRA EZAGUTZEN**

Ikastaroan parte hartzen dutenek oinarrizko ezagutza, aplikazioa eta armonia landuko dituzte, besteak beste. Ibon Larrañaga izango da irakaslea.

Eguaztenetan izango dira eskolak: etzi, hilak 23, hasi eta sei astez luzatuko da. 19:00etatik 20:00etara.

Prezioari dagokionez, euskara elkarteko bazkideek 18 euroordaindu beharko dituzte parte hartzeko, eta gainontzekoek, 20 euro.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

## Argazki erakusketa Emakume Txokoan

Bertako emakumeak zein etorkinak dira erakusketako protagonistak

**E.B.** > ARRASATE

Arrasateko Emakume Sailak argazki erakusketa antolatu du. Bihar zabalduko dute Emakume Txokoan, eta hilaren 31ra arte ikusi ahal izango da. Ordutegia honako hau da: 16:00etatik 19:00etara.

**TALDE LANA**

Emakumeek egiten duten ekarpen ekonomikoa ezagutarazteko antolatutakoa da erakusketa. Arrasateko Emakume Sailak, Munduko Emakumeak Elkarteak eta Emakumeak Aniztasunean taldeek egindako argazki lanen bilduma da.

Euskal Herriko emakumeek zein emakume etorkinek egiten dituzten lan mota eta baldintza ezberdinak ikusteko aukera ematen du erakusketak.





GAURKO BABESA,
BIHARKO ARNASA.

**Kutxa Bizitza Aseguru** bat kontratatzen duzunean kezka asko alde batera uzten dituzu. Zatoz guregana eta ziurtatu zeuretzat eta etxekoentzat nahi duzun bizi-maila zeure neurrira egindako aseguru batekin.

KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK.
Lasaibidea denontzat.



Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

**KONTZERTUA** > ERREKALDEKO JAIAK

# Errekaldeko plaza eszenatokitik hasi eta atzera arte bete zen egubakoitzean

Oñatiko auzoan, Sospechosos, Obligaciones, Sex Museum eta Gatillazo taldeak aritu ziren 21:00etan hasi zen emanaldian




EVARISTO Evaristo, abesten; Errekaldeko jaietako klasikoa da. JOSETXO ARANTZABAL

**I.B./E.B.** > ARRASATE

Sospechosos oñatiarrak, Obligaciones gasteiztarrak, Sex Museum madrildarrak eta Gatillazoko musikari ezagunak aritu ziren Oñatin, Errekaldeko jaietako egubakoitzeko kontzertuan.

**KONTZERTU ONA**

Herritarrak izan ziren lehenak eszenatokira igotzen. Oso ondo aritu ziren, kontuan edukita gazteak direla. Gainera, neska batek abesten du, eta hori, Oñati baterako, arraroa da. Izan ere, neska batek abesten duen herriko talde bakarra da Sospechosos. Eta jakinda talde mordo bat daudela, jendeak asko baloratzen du.

21:00etan hasi zen kontzertua, eta, goiz izan arren, eta jendea afaltzen egon arren, nahiko jende bildu zen. Punck-rocka egiten dute; hasierako punka, 70eko hamarkadakoa.

Obligaciones taldekoek ere punck-rock arloa jorratzen dute, baina rockeroagoa da euren musika. Horiek ere oso ondo aritu ziren. Abeslaria zirikatzaile profesionala da, eta denentzako eduki zuen zerbait: hasi Ruper Ordorikatik eta Arantzazuko Ama Birjinara arte.

Sex Museumen kontzertua bikaina izan zen. Oñatira etortzen diren hirugarren aldia izan da oraingoa, eta, beste behin ere, maila izugarria erakutsi dute. Etorri zen bateria ez zen hasierakoa, hura beste talde batekin dagoelako biran. Oñatin aritu zena mutil ekuadortar bat izan zen, eta taldean berria zela ez zen nabaritu ere egin. Batez ere, azkeneko diskoko abestiak jo zituzten eta, kontzertu osoan, jende gehien bildu zen unea izan zen. Madrilen lan egin, eta zuzenean ailegatu ziren Oñatira. Afaldu eta zuzenean jo zuten, inolako soinu frogarik egin gabe.

Gatillazo izan zen azkena. Evaristo Errekaldeko jaietako klasiko bat da, gainera; urtero egon da bertan, La Polla, Gatillazo edo beste talderen batekin. Betiko moduan, oso ondo ibili zen. Daukan adinerako, mutiko bat moduan mugitzen da. Gatillazoren azken bi diskoetako abestiak jo zituzten, gehienbat, tartean, La Pollaren abestiak ere joan baziren ere.



**KRONIKA** > BERGARAKO MUSIKA ESKOLAREN 19. UDABERRIKO JAI KONTZERTUA

# Bergarako pilotalekua lepo bete zen domekan Udaberriko kontzertuarekin

12:30ean hasi zen emanaldia, eta ordu eta laurdeneko iraupena izan zuen

Bergarako musika eskolako taldeek parte hartu zuten; guztira, 500 ikasle inguru


**500 IKASLE** Bergarako musika eskolako ikasle guztiek parte hartu zuten emanaldian. EDURNE BURGAÑA

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA
Domeka eguerdian, Bergarako musika eskolako ikasleek XIX. Udaberriko Jai kontzertua egin zuten. 500 ikasle inguruk parte hartu zuten, eta haien guraso eta lagunek Bergarako frontoia betebete egin zuten.

**'KRISKITIN', TALDE BILA**
Bergarako musika eskolako Suzuki taldeak hasi zuen ekitaldia. Baina, aurkezpenaren erdian, *Kriskitin* agertu zen. Musikari bila zebilen soineko gorridun neskatila.

Hasi ziren, bada, Suzuki taldekoak. Josune Ena irakaslearen zuzendaritzapean aritu ziren, eta Eli Mendiaraz, pianoan. *Allegro, Etorri ume txikiak* eta *Twinkle, twinkle, little star* jo zituzten.

*Abesti goxuenak biolak jotzen dituzte, biola guztiak gerta zaitezte hasteko. Sokatxo* biolina agertu zen frontoian, eta *Kriskitin*-en lagun egin zen.

Haurren abesbatzakoak etorri ziren jarraian. *Doe ba Doe* eta *I'd like to teach the world to sing* abestu zituzten; bigarren hau, gainera, euskaraz. Cristina Larrañaga izan zen zuzendaria, eta emanaldi koloretsua egin zuten gazteek, euren koloretako kamisetekin. Dantzan ere aritu ziren, gainera.

*Saxoa, goxo-goxo dua dua dua, saxoa goxo goxo dua dua dua. Dubadu* saxoa ere *Kriskitin*-ekin joan zen taldea osatzera.

Abesbatzaren atzetik, akordeoi orkestra. *Hijo de la Luna* eta *Mama mia* abestiak jo zituzten. Laguntzen, pianoan, Nerea Urresti eta Amaia Urdangarin ibili ziren. Maria Jesus Ugalderen zuzendaritzapean egin zuten euren tartea akordeoilariek.

*Fagotak erritmoa jartzen digu popopopopopo, fagotak erritmoa jartzen digu popopopopopo. Fagotxu* fagota ere talde bila zebilen, eta *Kriskitin* eta bere lagunekin bat egitea erabaki zuen.

Orkestra sinfonikokoen zuzendaria Andoni Sierra izan zen, eta abesti bi jo zituzten horiek: *Pello Joxepe* eta *Star Wars*.

*Tronpetak esnatzen gaitu papapapapapa, tronpetak esnatzen gaitu papapapapapa. Tatarata* tronpeta ere *Kriskitin* eta gainerakoekin bildu zen taldea osatzeko.

**PARTE HARTZEN**
Alberto Laskurainen zuzendaritzapean jo zuten hurrengoek, gazte bandakoek. Ez Dok Amairu talde mitikoaren abestietatik, sei gaiez osatutako selekzioa egin du Laskurainek, eta horixe jo zuten.

*Tronpak berriz ez du arazorik, sol do do sol, sol sol sol do.* Tronpa bat ere agertu zen bergarako frontoian, taldekide bila. *Kriskitin* eta gainerakoen lagun egin, eta eurekin joan zen.

Amaitzeko, Bergarako musika eskolako taldeak koral, HHko eta HMko 1. eta 2. mailako ikasleekin batera aritu ziren. Bi abesti jo eta abestu zituzten guztien artean. Lehena *Orkestra* izan zen, Andoni Sierrak zuzenduta. Emanaldi guztian zehar, talde batek amaitu eta bestea hasi bitartean ikasitako abesti zatiek osatzen dute letra.

Bigarrenek, eta Alberto Laskurain zuzendari lanetan zebilela, *Bergarako Musika eskola (martxa)* abestu eta jo zuten. Abestiaren letra egitarauan bertan zetorren, eta bergararrek gogotsu abestu zuten.

Emanaldia amaitzerako, *Kriskitin*-ek osatuta zeukan bere taldea, biolina, saxofoia, fagota, tronpeta eta tronparekin.

**UDAKO IKASTAROAK** > MATRIKULA EPEA

# UEUren udako ikastaroetan izena emateko epea, zabalik

'Uda zeure neurrira' lelopean, 30 ikastaro antolatu dituzte aurtengo udarako

Uztailaren 2an hasi eta 20an amaituko dira: Eibar, Baiona, Iruñea eta Lizarran izango dira

**E.B.** > BERGARA
Udako Euskal Unibertsitatearen udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 21era arte. *Uda zure neurrira* lelopean, haize berrituekin datoz ikastaroak.

**BERRIKUNTZA**
Hogeita hamabost urte daramatzate udako ikastaroak antolatzen. Aurtengoak uztailaren 2an hasi eta 20an amaituko dira. Eibarko Markeskoa Jauretxean, Baionako Bernat Etxepare lizeoan, Iruñeko hizkuntza eskolan eta Lizarran izango dira aurtengo ikastaroak.

Aurtengoak, gainera, sekula baino anitzagoak eta malguagoak dira. Tokian tokikoak, iraupen eta ordutegi askokoak eta joan-etorriak errazten dituztenak dira aurtengo ikastaroak.

Landuko dituzten gaien artean, honako hauek daude: feminismoa, antzerkia, oroimen historikoa, apiterapia, hiesa, literatura, sexologia, flora, hizkuntza plangintzak, argazkien psikologia, kultur ondarea, psikomotrizitatea, estetika naturala, yoga, kantua, informatika, komunikazioa, familia bitarekaritza eta euskal hiria, besteak beste.

**PREZIOAK**
Matrikula UEUren webgunetik –*ikastaroak@ueu.org* e-posta helbidean edo *www.ueu.org* Internet helbidean– egin behar da ekainaren 21a baino lehen.

Prezioari dagokionez, ikastaro motaren arabera, prezio ezberdinak daude. Horrela, bada, prezio orokorrei dagokienez, merkeenak 34 euro balio du, eta garestienak, 139 euro. Egun bakarreko matrikulak, ostera, 28 euro balio du.

Jubilatuek, ikasleek eta langabeek deskontuak edukiko dituzte matrikulan. Horretarako, beraien egoera ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute—ikasle txartela edo INEMeko txartela, adibidez.

Hala ere, aipatzekoa da hainbat Udalek herritarrei dirulaguntzak ematen dizkietela ikastaroetan parte hartzeko. Horien artean, Bergarako Udala dago.

Argibide gehiago nahi izanez gero, beroiek lortzeko hiru bide daude: UEU Otaola hiribidea 1, 20600 Eibar helbidera idatzi edo bertara joatea; 943 82 14 26 telefono zenbakia, edo e-posta idaztea *ikastaroak@ueu.org* helbide elektronikora.

**ERREKORRA**

# Urkuluko 2. patin sugea egingo dute eguenean

**E.B.** > ARRASATE
Arrasateko Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketakoek Urkuluko bigarren patinsugea antolatu dute. Errekor berria egiteko, patinatzaile guztiak elkarri gerritik helduta, 500 metrotako ibilbidea egin beharko dute.

**URTEROKO HITZORDUA**
Arizmendikoek jarduera fisikoen zaleak eta, batez ere, patin zaleak bildu nahi dituzte ekintza horrekin. Iaz jarri zuten martxan errekorra, eta urtero hausteko asmoa dute.

Eguenean izango da hitzordua, 18:30ean. Urkuluko urtegian batuko dira, Goronaeta ondoko egurrezko gimnasia eremuan.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Koldo Mitxelena eta Arteleku.** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. Ikus-artearen, ikus-entzunezko, literatura eta artearen sorkuntzan hasitako artegileei beraien obrak sustatzeko eta proiektuak aurrera eramateko laguntzak. Epea: ekainaren 12a.

**> Europa.** Eusko Jaularitza. Europako gaietan eta eskualdeen arteko lankidetzan espezializatzeko bekak. Epea: Ekainak 15.

**> Graduondokoak.** La Caixa. 2008-09 ikasturtean AEBetan masterrak, doktoretzak edo graduondoko ikerketak burutzeko 50 beka. Epea: ekainak 15.

### LANA

**> Hainbat.** Langai. Astero berritzen ditugu Gazte Bulegoan Langain jasotzen diren lanpostuen gaineko informazioa. Saltzaileak, etxez etxeko zerbitzariak, mekanikariak, sukaldeko altzarien muntatzailea, prototipoetan aditua, sukaldariak, erizainak, salmenta ordezkaria, postariak...

**> Zuzendaria udalekuetarako.** Sedena S.L. Udaleku irekietarako aisialdi eta denbora libreko zuzendariak behar dituzte, 7-15 urte arteko gazteekin lan egiteko. Epea: ekainak 15.

### EKINTZAK

**> Kanpaldiak.** Gurutze Gorria. Udaleku irekiak Gurutze Gorriak antolatuta Salinas de Jacan (Huesca), uztailaren 17tik 22ra. Plaza mugatuak. Epea: ekainak 15.

**> Antzerkia.** Donostiako Udala. XVI. Poltsiko antzerkiaren jaialdia Donostian, maiatzaren 27ra arte.

### IKASTAROAK

**> Japonia.** Marugame elkartea. Mahuka marrazketa, japoniar herri-jolasak eta japoniar hizkuntzaren hastapenei buruzko ikastaroak izango dira. Epea: plazak bete arte.

**> Udako Euskal Unibertsitatea.** Udako Euskal Unibertsitatea. Udako 35. Ikastaroak uztailaren 2tik 20ra burutuko dira Eibar, Baiona eta Iruñean. Epea: ekainaren 21.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

**Aretxabaleta.** Etxea salgai herri erdian. 72 m2. Garajearekin. Prezio interesgarria. Deitu 659 64 67 38 zenbakira.

**Arrasate.** Apartamentua salgai. Arimazubin. Prezio onean eta guztiz berrituta. 687 83 97 37.

**Arrasate** Duplexa salgai Otalora kalean. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, igogailua eta 20 m2-ko terraza. Deitu 696 79 43 89 telefonora.

**Arrasate** Zerrajeran etxebizitza salgai. 2 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, terraza eta garajea. Errekaruntz begira. Deitu 656 77 94 32 zenbakira.

**Arrasaten.** Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 metro koadro erabilgarri. Azken solairua, igogailuarekin, ganbararekin eta sotoarekin. Berogailu indibiduala. Bizitzera sartzeko gertu. Deitu 606 25 92 80 zenbakira.

**Bergara.** Baserria salgai. Berrituta. 350.000 euro. Deitu 660 04 58 60 zenbakira.

**Bergara.** Boni Laskurainen 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Erdia moldatua. Bizitzeko gertu. Prezio interesgarria. Deitu 628 26 65 77 telefonoroa.

**Bergara.** Etxea salgai Simon Arrietan. 57 m2, bi logela. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 649 63 11 74.

**Eskoriatza.** Duplex berria salgai. Erdialdean. (100m2). Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea eta trastelekua. 655 70 46 90.

**Eskoriatzan** etxebizitza salgai, 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, garajea eta trastelekua. 686 92 55 71.

**Mijas Costa.** Luxuzko urbanizazioan etxea salgai edo errentan. 73 m2, terraza handia, igerileku eta garajearekin. Aukera paregabea. 617 41 49 14.

**Oñati.** Aurten eraikiko den etxe berri baten duplexa salgai. 110 m2. Lau logela, sukaldea, egongela, bi komun eta garajea. Deitu 670 85 85 41 zenbakira.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 120 metro koadro. Kalitatezko materialak. Dena kanpoaldera begira. Egongela-jangela, sukaldea, hiru logela, bi bainugela, ikasgela eta trastelekua. 943 78 34 89.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan. Hiru gela, bi bainu eta ganbara. Garajea aukeran. Prezioa adostekoa. 656 74 80 47.

**Oñati.** Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m2. Oso eguzkitsuak. Sukaldea guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

**Torrevieja.** Etxea salgai. 67 m2, bi logela. 110.000 euro. 671 60 82 81.

**Aguilas (Murtzia).** Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainua. Hondartza 300 metrora. Prezio onean. 656 25 86 44 edo 656 25 86 44.

**Alcoceber.** Estudioa alokagai daukat. 646 31 36 27.

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otaloran 18n, Uarkapeko arkupetan. 638 17 93 63.

**Arrasate.** Etxe berria errentan herri erdian. 943 77 13 02.

**Benidorm.** 2 logela, 2 komun, aire egokitua, garaje eta igerilekua. Hondartzatik gertu. 666 67 06 94..

**Conil.** Etxebizitza ematen dut errentan Conilen, Palmarren. Hondartzatik 30 metrora eta merke. 661 90 27 11.

**Eskoriatza.** Apartamentua errentan ematen da. Altzariekin. 658 70 91 54.

**Eskoriatza.** Etxebizitza errentan ematen da. 3 logela. Eguzkitsua. 943 71 48 36.

**La Barrosa-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Noja.** Apartamentua. Duplexa da eta hondartza ondoan dago. 696 90 94 43.

**Jaca.** Etxe bat errentan ematen da maiatzetik aazarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauzka. 665 73 95 65.

**Nojan** apartamentu bat errentan ematen da, udan. Garajea eta igerilekuarekin, bi logela. 635 75 35 29.

**Peñiscola.** Apartamentua emango nuke errentan Peñiscolan. Ekain, uztail, abuztu eta irailerako. Igerilekua eta aparkalekua ditu. Hondartzatik gertu dago. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

**Peñiscola.** San Juanetan apartamentua errentan ematen dut. Guztiz hornituta. Instalazio pribatuak. Hondartzatik 50 m-ra. 610 87 83 57.

**Salou.** Lau pertsonarendako apartamentua errentan. Ekainean, uztailean edo irailean. 689 21 72 08.

**Tarragonako** San Carlos de la Rapita herrian, Ebroko deltako zonan. Urbanizazio pribatuan etxe berria errentan ematen da. Hiru logela, egongela, jangela, bi komun, sukaldea, terraza, igerilekua eta garajea. Aire girotua. Uztail eta irailerako. 617 70 96 08 edo 687 63 90 22.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Arrasate.** Arrasateko gazte batek erdialdean pisu bat errentan hartuko luke. 639 96 30 98.

**Debagoiena.** Etxebizitza bat alokairuan hartuko litzateke irailetik urtarrilaren bukaera arte. 943 71 31 37.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu 671 44 81 59 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Ekainetik aurrera. 653 70 50 68 edo 650 93 96 93.

**Debagoiena.** Neska gaztea etxebizitza osatzeko gertu. Deitu 678 28 63 07 telefonora.

**Donostian** logela alokatuko nuke, etxea konpartituz. Deitu 652 74 20 82 zenbakira.

**Bergara.** Bikote batendako gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. Natalia. 670 85 86 68

## 2/ GARAJEAK

**Arrasate.** Garaje itxia alokagai Uarkapen. Deitu 605 77 59 03 telefono zenbakira.

**Bergara.** Garajea errentan ematen da Ibargarai kalean. Deitu 943 76 23 53 zenbakira.

**Bergara.** Garajea salgai San Antonion. 21 m2, bi altuera. 21.000 euro. 619 65 10 87.

**Arrasate.** Roneon dagoen garajea errentan ematen dut. 90 euro hilean. 615 70 22 68.

**Bergara.** 108 m2-ko garaje itxia alokatzen da. Trastelekua, garajea... Zubiaurren. 943 76 23 53.

## 3/ LOKALAK

**Bergara.** Lokal bat hartuko nuke errentan. Jairo. 660 43 71 94.

**Oñati.** Lokal bat hartuko nuke errentan. 688 61 89 98.

## 4/ LANA

**Arrasate.** Etxea garbitzeko norbait behar dut astean bi aldiz, orduka. 600 67 38 65.

**Oñati.** Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko arratsaldez. 680 97 06 31.

**Arrasate.** Behebarruak, etxeak, tabernak… garbituko nituzke aste bukaeretan. 678 40 57 04.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak edo pertsonak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasaten** bizi den neska gazte bat gertu etxeko lanak egiteko (orduka edo barneko langile), umeak edo nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko (elkarteetan edo komunitateetan). 620 72 27 30.

**Bergara.** Gizonezkoa gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87.

**Bergara.** Umeak zainduko nituzte, arratsaldez. Umeen heziketa ikasi dut. 630 91 41 90.

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu dago mutil bat. Marcos. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko (tabernak eta elkarteak) eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). Deitu 637 21 97 04 edo 943 79 39 76 telefonoetara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko (tabernak eta elkarteak) eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lan egiteko edo garbiketak egiteko. Deitu 695 78 48 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko, zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Deitu 627 65 02 71 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gaztea prest zerbitzari lanak egin edo ontziak garbitzeko. Autoa du. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak gauetan zaintzeko gertu dago neska bat. 615 79 41 02.

## 5/ IRAKASKUNTZA

**Bergara.** Matematika, fisika eta kalkulu eskolak ematen dira. Maila guztiak. Irakaslea euskaldun berria da. 696 38 10 07.

**Bergara.** Uztailean laguntza eskolak eta ingelesa ematen dira. Batxilergo mailara arte. 652 73 12 56.

**Bergara** Uztailean eskola partikularrak emango ditut. Batxilergo mailako 2. mailara arte; eta ingelesezko eskolak ere emango ditut. 652 73 12 56.

## 6/ MOTORRA

**Autokarabana salgai** Perfilatua. 130 ZP. 2006ko otsailekoa. 23.000 km. 667 41 20 33.

**BMW** autoa, 320ie 36 coupe. M5 hagunak, jesarlekuak, diskoa. Disko zulatuak. 134.000 km. Ezin hobeto dago. Deitu 659 04 20 99 zenbakira.

**Golf GTI III** autoa salgai. 2.800 euro. 666 44 10 09.

**KTM EXE 200 motorra** salgai. 2005ekoa. Matrikulatua. Oso egoera onean. Plastiko kit batekin. Aire filtro bat. 3.800 euro. 635 74 09 70.

**Land Rover** Discovery TDi. 1997ko maiatzekoa. 148.000 km. Ondo. 659 04 20 99.

**Mobilette** GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago, erabiltzen ez baitugu. 659 18 20 45.

**Opel Astra** salgai. 1.200 euro. 1991koa. 180.000 km ditu. Deitu 620 53 83 27 zenbakira.

**Renault Express** furgoneta salgai. SS-AG, 600 euro.Deitu 943 76 18 96 zenbakira.

**Trialerako motorra** salgai. 1.600 euro. 690 81 64 39.

**VW California.** 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

**ZX** auto gorria salgai. 2.016 balbula. 2.000 euro. 695 79 00 34.

**Golf IV** edo A3 TDI autoa erosiko nuke. 3 atekoa. Beltza edo gris iluna. Gehienez 140.000 km. 646 80 21 96.

## 8/ DENETARIK

**Altzariak** saltzen ditut, bigarren eskukoak. Armairuak, alfonbrak, lanparak... Egoera onean. 689 21 72 08.

**Bizikleta estatikoa** eta abdominalak egiteko taula. Deitu 678 40 57 04 zenbakira.

**Gatzagan** aintzinako altzariak saltzen dira. Berriztatzeko daude. Merkeak. 615 74 13 47.

**Kanpin denda** salgai, Boomerang markakoa. 2 gela eta halla. 2006koa da, oso ondo zaindua. 699 86 29 93.

**Pesak** egiteko (100 kg-ra arte) makina saltzen dut. 200 euro. 650 58 43 00.

**Piragua.** Prijon markakoa. 635 75 70 18.

**Scooter** Kymco motorra salgai. Bet and Win. 150 cc. 8.700 km. 636 85 74 43.

**Txanpon** eta bankuko billete zaharrak erosten eta saltzen ditut. 688 61 85 02.

**Umea eramateko** mendiko motxila eta bizikletako aulkia erosi nahi ditugu. 696 40 82 19.

**Kanpin denda-karroa.** Comanche-Arizona 4 lagunentzako karru-denda kendu behar dut. garajetik kentzeko beharragatik dohainik. 626 43 25 06 edo 943 79 83 26.

**Bergara.** Motxila eta kontsolako zortzi joko galdu ditut Espoloian. 659 05 63 82.

**Bergara**. Urre zuridun eta urre horidun eskumuturrekoa galdu nuen apirilaren 29an. Toki Eder, Artekale eta plaza inguruan ibili nintzen. 686 98 20 96.

**Patinetea** aurkitu nuen Bergarako Espoloian. 666 21 57 72.

**Maiatzaren 21a: 130. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 21, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Maiatzaren 26an Elgetako ESPALOIAN izango den *Mathilde maitatzeko moduak* musika ikuskizunerako 6 sarrera. Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.**
- Jose Luis Agirre Altube (Bergara)
- Xanti Ugarte Maiztegi (Oñati)
- Pilar Agirreolea Uriarte (Bergara)

**131. zozketako saria**

**Lau sarrera Elgetako ESPALOIAN ekainaren 1ean izango den antzezlanarako, eta sei sarrera BERGARAKO ORKESTRA TXIKIA ikusteko, ekainaren 3an**



**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 21



**> Hauteskundeei buruzko saio berezia**
**21:47**
Aretxabaletako hautagai politikoak izango ditugu gaurko saioan, euren proposamenak herritarrei aurkezteko asmoarekin.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Hauteskundeak07. Eskoriatza.
**14:15** Ikusten.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Klika.
**16:15** Erreportajea.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta lur.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Kirolari .
**19:45** Berriak.
**20:15** Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak07. Aretxabaleta.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ikusmira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 22




**> Batzar Nagusietarako hautagaiak**
**21:47**
EAE-ANVtik Antxon Gomez, EAJtik Markel Olano, EAtik Iñaki Galdos eta Aralar-EB taldetik Rebeka Ubera izango ditugu berbetan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Hauteskundeak07. Aretxabaleta.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Harmaillatik.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Harmaillatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Boboboak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak07. Batzar nagusiak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 23



**> Hauteskundeei buruzko saio berezia**
**21:47**
Gaur, Oñatiko hautagai politikoen txanda izango da. Bakoitzak gizarte-gaien inguruan dituen kezkak eta proposamenak azalduko ditu.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Hauteskundeak07. Batzar nagusiak.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmaillatik.
**18:15** Erreportajea.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Teknopolis.
**19:45** Berriak.
**20:15** Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Zu kazetari.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak 07. Oñati.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ur eta lur.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 24




**> Hauteskundeei buruzko saio berezia**
**21:47**
Minutu eta erdiko tartean, Bergarako hautagai politikoek euren asmoen gainean berba egiteko aukera izango dute gaur gauean.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Hauteskundeak 07. Oñati.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa .
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Klika.
**19:45** Berriak.
**20:15** Boboboak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak 07. Bergara
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 25



**> Hauteskundeei buruzko saio berezia**
**21:47**
Oraingo asteko azken saioan, Arrasateko hautagai politikoek hauteskundeetarako zer asmo dituzten jakiteko aukera eskainiko du GOITBk.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Hauteskundeak 07. Bergara.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Erreportajea .
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak 07. Arrasate.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Kirolari.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Mondra eta lehen mailako taldeak**
**10:35**
Atxabalpeko azken partiduaren ondoren, Mondrako zuzendaritzako bi kidek Mondraz, Realaz eta Athletic-ez egingo dute berba. 11:10ean, Dunixe Royo artisau arrasatearrak Erdi Aroko azoka komentatuko du.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Merkatu txikiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena)

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## asteko hitzorduak

### Erakusketa



ARRASATE
**> Gaur hasi eta maiatzaren 31ra bitarte, argazki erakusketa izango da**
Argazki erakusketa hau Munduko Emakumeak Elkarteak antolatu du eta Emakume Txokoan izango da. Gaia inmigrazioa eta lana da, eta ikustera joateko ordutegia honakoa da: arratsaldeko lauretatik zazpietara.

### Hitzaldia



BERGARA
**> Oraingo eguaztenean, Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldia izango da**
Hitzaldiaren izenburua *La guerra civil de 1936 en Euskal Herria* da (gaztelaniaz), eta hizlaria, Santiago de Pablo. Arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da hitzaldia Miguel Altuna Institutuan. Antolatzailea Bergarako Udal Artxiboa da.

### Antzerkia



ESKORIATZA
**> Haurrek txotxongiloak izango dituzte ikusgai oraingo eguenean Eskoriatzan**
Eguenean, hilak 24, Enkarni Genuaren Txotxongilo taldeak *Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?* antzezlana aurkeztuko du. Eskoriatzako Udalak antolatu du antzerkia, eta bibliotekan izango da, arratsaldeko seietan.

## gertutik



**Eneko Olasagasti**
Zuzendaria

# "Umorea egiteko, aktoreak eta ikusleak dira gakoak"

**AMAIA ZALDUA** > BERGARA

**Eneko Olasagasti Donostian jaio zen, 1960an. Leioan Kazetaritza ikasten ari zela, Donostiako Herri Irratian hasi zen lanean bekadun, eta gero Antzerti eskolan aritu zen (1981-1984). Askok *Bi eta bat*, *Jaun ta jabe* edo *Martin* telesailak zuzentzegatik ezagutzen dugu; aktore, gidoigile, zuzendari eta produktore izateaz gain, irakasle ere bada MUn.**

**Euskal umorea eraman duzu telebistara?**
Ez dakit euskal umorea, baina Carlos Zabalarena eta nirea, bai, behintzat. Eta gu euskaldunak izanik, bada... Ez dut uste euskal umore bakarra dagoenik. Guk anglosaxoiak imitatu eta gure herriaren galbahetik pasatzen genituen istorioak. Umorea egiterakoan, herritartasuna, neurri batean, aktoreek ematen diote, eta ikuslearen ikuspuntuak ere bai.

**Zuzendari lana baloratzen da?**
Batzuetan, berak eramaten du ohore guztia, eta beste lanpostu batzuk, gidoilariarena kasu, oharkabean pasatzen dira. Beste kontu bat litzateke ea herri honetan nahikoa baloratzen den. Eta hor, ezetz esango nuke; oro har, gure lanbideari ez zaio behar bezalako garrantzia ematen. Ez lanbideari, ez eta arloari: ikusentzunezkoak eta antzerkia. Ez gara konturatzen gure burua eta herria munduratzeko modua horixe dela.

**Zer da errazago, zuzentzea ala irakastea?**
Hasierak beti dira zailak. Zuzentzeko, behar duzu zerbait kontatzeko, eta irakasteko ere bai. Ni ez naiz akademikoa; eskarmentutik abiatu naiz klaseak emateko.

**Gerora begira, zer?**
Berriz ere zinema zuzentzea gustatuko litzaidake, eta, inork deitzen ez nauenez, enkarguzko lana egiteko, neroni ari naiz istorioak bilatzen: nobelak irakurri, bizitzari erne begiratu, eta, denbora hartuz gero, hor zain dudan nobela baten zinemarako egokitzapena egin nahiko nuke.
Antzerki arloan, berriz, aspaldian dut buruan bertsoa eta antzerkia uztartuko lukeen zerbait egiteko gogoa, ea aukera sortzen den...

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Maiatza, ezkontzen eta loreen hilea

Euria gogoz bota du aste bukaeran. Maiatza udaberria eta loreekin lotzen dugun arren, aste bukaera ez da halakoa izan. Ezkontzen hilabetea ere izaten da maiatza; bada, zapatuan ezkondu zirenak zoriondu gura ditut.

Ezkonberriek bide berri bati ekingo diote; Atxabalpek eta Garagartzak, ordea, agur esan diote kirolari. Zapatuan, azken partiduak jokatu ziren bi zelai horietan. Atxabalpen, esaterako, gozokiak banatu zituzten hara joandako haurren artean. Eta guretzat ez zen ezer egon!

**"Evaristo ikusteko asmoz, jende mordoa bildu zen egubakoitzean Errekaldeko jaietan"**

Errekaldeko jaietan, jende mordoa bildu zen egubakoitzean **Evaristo** ikusteko asmoz. Lehenago, **Obligaciones** gasteiztarrek jo zuten; ikusleak zirikatu guran, **San Migel santuaren** eta **Arantzazuko Ama Birjinaren** paperean sartu zen abeslaria. Hala, oñatiarrak zein txepelak garen konturatu zen mutila.

Zapatuan, Labegaraietan, **Mikel Laskurain** *Wazemank* programako aktore bergararra, eskubaloi taldea animatzen egon zen. Jokalarien gurasoek, partiduaren garrantzia ikusirik, pankarta handi bat eraman zuten taldea animatzeko. Hain handia zen, 12 minutu gura izan zutela pankarta bere lekuan jartzeko. Beste baterako txikiagoa egin, edo ingeniariren bat eraman beharko dute.

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

asteburuko albuma



**Txomin Txapel unibertsitatean.** Huhezi fakultateko euskara taldeak antolatuta, Txomin Txapel eguna ospatu zuten egubakoitzean. Goizean, herri kiroletan jardun ostean, Txomin Txapelen jaitsiera, triki-poteoa eta tortilla txapelketa izan ziren. Bazkaritara 170 lagun elkartu ziren eta, arratsaldean, jolasak eta capoeira emanaldia izan ziren. Jaia gauerdira arte luzatu zuten erromeria giroan.



**Muniben, trikitia eta dantza.** Erromeria giroa izan da maiatzeko egubakoitzetan Bergaran. Lehenengoan, Rakel Pujanak eta Jon Ostolazak jardun zuten; bigarrenean, Koldo Iparragirrek eta taldeak. Azken saioan, Bergarako trikitilari eta dantzarien erakustaldiaren ostean, trikitizaleek afaria izan zuten eta, afalostoan, Izer, Alabier eta Lutxurdioren trikiti doinuekin aritu ziren dantzan.



**San Isidro azoka.** Martitzenean izan zen San Isidro eguna, baina antzuolarrek zapatuan ospatu zuten. Eguraldi tristeak ez zituen herritarrak ikaratu, eta frontoi ingurura gerturatu ziren. Ogia, gazta, bertako produktuak eta artisau lanak ziren han, eta animaliak ere ipini zituzten ikusgai. Herriko trikitilari eta txistulariek musikaz alaitu zuten giroa. Aipatzekoa da ohitura bihurtu den kukumarro lehiaketan partaidetza handia izan zela, eta lan originalak aurkeztu zituztela.



**Sekulako tortillak Zubiaurren.** Aste bukaeran, jaiak ospatu dituzte Bergarako Zubiaurren eta Martokon. Umeendako jolasak, buruhandiak, zezentxo eta poniak eta txokolatada izan dira eta, nagusiendako, mus eta toka txapelketa. Musikak ere izan du tokirik jaietan, txistularien eta Tucan taldearen eskutik. Jan eta edanik ere ez da falta izan eta, aipagarriena, egin dituzten tortilla erraldoiak: 30 kiloko bi tortilla egin zituzten, eta gerturatu ziren guztien artean banatu.



**Asentzio eguna herrian.** Barikuko kontzertuarekin hasi zituzten Asentzio eguneko ekitaldiak Elgetan. Tuboskapi eta Estiercoolsekoen kontzertuan, jende asko batu zen. Domekan, Asentzion egitekoak ziren ekintzak herrira ekarri zituzten, eguraldiarengatik. Dantza eta trikiti saioa eta hamaiketakoa gimnasioan izan ziren. Bazkaritarako gaztetxean 30 lagun elkartu ziren eta, bazkalostean, umoretsu jardun zuten Enaitz Alustiza, Jokin Labayen eta Manex Agirre bertsolariek.



**Al-Andalusekoen egun handia.** Kultura astea ekitaldiz betea izan da Arrasateko Al-Andalus elkarteko kideendako. Aurten, ekitaldiak Donostiara ere eraman dituzte Arrasateko andaluziarrek. Baina egun handia, zapatua, herrian ospatu zuten. Txorizoa eta okela erretzeko parrilla gertatzen harrapatu genituen, eta, bapo bazkaldu ostean, musika eta dantza ikuskizunekin borobildu zuten astea.

hildakoak

• **Marcelina Oianguren Kortabarria.** Bergaran, maiatzaren 17an. 89 urte.




## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**

## zorion agurrak



BERGARA
**Lierni Azkarate**
Maiatzaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta ahizpa Naiararen partetik!



ARRASATE
**Uxue A. Erretolatza**
Maiatzaren 18an, urtebete. Zorionak eta patxo potolo bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Ivan Lizarralde**
Maiatzaren 18an, urtebetetzea. Zorionak eta oso-oso ondo pasau! Kuadrilakuak.



ARRASATE
**Unai Lopez eta Beñat Alonso**
Maiatzaren 18an eta 19an. Zorionak familia osoaren partetik! Muxu handi bana!



OÑATI
**Igor Arrese Murguzur**
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, Nerea eta Leireren partetik!



OÑATI
**Elena Altube**
Maiatzaren 19an urtebetetzea. Zapatuan goxatu zeben? fin-fin? Zorionak lagunen partetik.



OÑATI
**Nerea Zelaia Arrese**
Maiatzaren 20an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
**Aintzane Lasa**
Maiatzaren 20an, urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik!



ARETXABALETA
**Ander Uribarren Lasagabaster**
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, asko maite zaituen familiako guztien partetik!



OÑATI
**Asier Zubiagirre Ugarte**
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
**Jon Anduaga**
Maiatzaren 20an, 8 urte. Zorionak etxekoen partez!



OÑATI
**Amaia Urtzelai Agirrebaltzategi**
Maiatzaren 20an, urtebetetzea. Zorionak, Amaia, eta urte askotarako!



BERGARA
**Aitor Aranzabal**
Maiatzaren 21ean urtebetetzea. Zorionak hauen partetik. Ondo pasau eguna.



ESKORIATZA
**Amaia Zaldua**
Maiatzaren 21ean 25 urte. Zorionak irakasle! Lankideen partetik.



DEBAGOIENA
**Jose Ortiz**
Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, Jose, eta ondo pasatu eguna! Familia guztiaren, bereziki, Niko eta Idoiaren partetik.



OÑATI
**Ekain Etxeberria Zabala**
Maiatzaren 21ean, 4 urte. Zorionak, maittia, eta muxu bat denon partetik!



BERGARA
**Mikel Gutierrez**
Maiatzaren 21ean, 9 urte. Zorionak, gurasoen eta anaia Aitzolen partetik!



BERGARA
**Idoia Martinez**
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Zorionak, etxekoen partetik!



OÑATI
**Mikel Biain**
Maiatzaren 21ean, 13 urte. Zorionak, Mertxe, Luxiano, Gorka eta Andoniren partetik!



OÑATI
**Aitor Biain**
Maiatzaren 22an, urtebete. Zorionak, tia Mertxe, tio Luxiano, Gorka eta Andoniren partetik!



ARRASATE
**Martxel Arantzadi**
Maiatzaren 22an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!



OÑATI
**Arantzazu Zumalde**
Maiatzaren 22an, 12 urte. Zorionak, etxekoen partetik!



OÑATI
**Aitor Lasagabaster**
Maiatzaren 22an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik!



BERGARA
**Miren Urra**
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak, bereziki Jone.



DEBAGOIENA
**Ubane Madera**
Maiatzaren 24an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik!



BERGARA
**Alex Arteaga**
Maiatzaren 25ean, 10 urte. Zorionak, etxekoen partetik!



ARRASATE
**Mirari Plazaola**
Maiatzaren 27an, 3 urte. Zorionak eta patxo haundi bat, Joanes, Garazi eta familixako danen partetik!

## jaiotakoak



**Eva Calleja Otazo**
Bergara > 3,760 kilo. Maiatzaren 15ean. Gurasoak: Mireia (Bergara) eta Asier (Elgoibar). Argazkian, Eva jaioberria, kumatxoan bapo lo.



**Aitor Altzelai Igartzabal**
Antzuola > 2,500 kilo. Maiatzaren 15ean. Gurasoak: Alaitz (Antzuola) eta Xabier (Antzuola). Argazkian, Aitor txikia, aitarekin.



**Hodei Pascual Fernandez de Jauregi**
Eskoriatza > 2,840 kilo. Maiatzaren 16an. Gurasoak: Pili (Eskoriatza) eta Jabi (Arrasate). Argazkian, Hodei jaioberria, amaren besoetan.



**Alazne Urkia Agirregabiria**
Eskoriatza > 3,080 kilo. Maiatzaren 16an. Gurasoak: Izaskun (Eskoriatza) eta Iker (Aretxabaleta). Argazkian, umea, aitaren besoetan.



**Kattalin Arrasate Lasa**
Elgeta > 3,860 kilo. Maiatzaren 16an. Gurasoak: Idoia (Eibar) eta Ibon (Ondarroa). Argazkian, Kattalin jaioberria, amaren besoetan.



**Miren Elortza Sanz**
Bergara > 3,150 kilo. Maiatzaren 17an. Gurasoak: Nagore (Bergara) eta Asier (Bergara). Argazkian, umea, amama Pili eta ahizpa Eiderrekin.



**Joanes Oses Egaña**
Oñati > 2,840 kilo. Maiatzaren 17an. Gurasoak: Tania (Oñati) eta Tarsi (Lezaun). Argazkian, Joanes txikia, kumatxoan.

BABESLEA




Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-05-21

**Manu Muniategiandikoetxea** > Margolaria

# "Pinturak eta sukaldeak badute elkarren antza"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Estudioan harrapatu dugu Manu Muniategiandikoetxea, gustura, lanean. Irratia izaten du piztuta eta irrati bidez ari da kanpaina jarraitzen.**

**Marrazki lehiaketa bat irabazi zenuelako zara margolaria?**

Egia esan, inoiz ez dut jakin nik aukeratu dudalako edo inguruak behartu nauelako naizen margolaria. Baina egia da ere erabaki behar duzula margolari profesionala izan edo ez. Dena dela, gustuko lana egiten dut.

**Lehen pezetak ere, margoei esker irabazi zenituen?**

Bai. Aitak ere margotu egiten zuen eta, akaso horregatik, etxean beti bultzatu naute margotzera. Lehiaketak irabaziz eta enkarguak eginez irabazten nuen diruak askatasun pixka bat ematen zidan, baina etxekoek ere asko lagundu didate beti.

**Gogoan duzu zertan gastatu zenituen lehen sosak?**

Akordatzen naiz, behin, lehiaketa bat irabazi nuela Zarautzen, 18 urte nituela. Koadrilako beste bi lagunekin joan nintzen, trenean. 20.000 pezeta zen saria: 5.000 lagunekin ospatzen gastatu nituen, eta beste 15.000 galdu egin nituen. Beste sari batzuk ere irabazi ditut, baina ez dut inoiz gehiago dirurik galdu.

**Sariak irabazi, erakusketak egin, Arcon behin baino gehiagotan egon... Horrelako kurrikulum onarekin, koadroak ere asko salduko dituzu, ezta?**

Saltzen ditut, baina ez horrenbeste, e? Askotan, kontrako efektua ere gertatzen da.

**Zenbatero etortzen zara Bergarara?**

Nahiko sarri, umeekin aitona-amonak ikustera. 18 urterekin joan nintzen Bilbora ikastera eta, azken urteotan, Donostian bizi naiz.

**Zer esan dizute lagunek liburuan irudi erotikoak sartu dituzulako?**

Kanpotik gai arraroa iruditu arren, artearen munduan, oso normala da erotismoa; garai guztietan eta artista guztietan ikusten dira lan erotikoak.

**Zer prestatzen ari zara orain?**

Ekainaren 1ean, Burgosen zabalduko dut erakusketa bat; 9an, Suitzara noa; eta Gabonetan, Koldo Mitxelenako aretoan egongo dira nire lanak.

**Beste zertan duzu esku ona?**

Sukaldean ibiltzea ere gustatzen zait eta, denen moduan, gustuko gauzetan ondo moldatzen naiz ni ere, esku ona dut. Pinturak eta sukaldeak, gainera, badute elkarren antza: denborak, presentazioa...

TEST-A

**Herria:** Bergarakoa naiz, baina Donostian bizi naiz azken 17 urteotan. **Adina:** 41 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak; eskulturan eta pinturan espezializatua. **Zaletasunak:** Mendia, gastronomia eta lagunekin egotea. Lehen, parrandak ere asko egiten nituen, baina orain, ez horrenbeste. **Gustuko kolore bat:** Gorria. **Eguneko momenturik onena:** Estudioan, lanean bakarrik nagoenean, edo bestela, umeekin nagoenean.



BERGARARRA Donostian bizi den arren, jaioterrira sarri etortzen da. ENEKO AZKARATE

## www.goiena.net

**Uda datorrela-eta, norbere burua zaintzeko egiten diren kanpainak egokiak dira, zure ustez?**




## biharamuna

Iñigo Biain

### Hauteskundeak, politikoak eta herritarrak

Hauteskunde garaian gaude, eta astebete barru agintari berriak eta ez hain berriak izango ditugu Udal eta Foru Aldundietan. Eta hauteskunde guztietan bezalaxe, arraza bitxi bat agertzen da politikoen mitin eta hitzetan: herritarrak. Herritarrak pertsonok omen gara, eskubide eta betebeharrak ditugunak, gazteak zein helduak, eskubikoak zein ezkertiarrak, abertzaleak zein konstituzionalistak, juduak, musulmandarrak, kristauak... Baina bada gauza bat arraza hau erabat ezberdina egiten duena. Izan ere, herritarra hauteskunde garaian ateratzen duzue soilik azalera, politikoek bizirauteko bere beharra duzuenean. Gainerakoan, satorra bailitza, politikoek herritarra lur azpian gordetzen duzue, lur azpian dagoena ezin baita entzun, ez baitu usainik botatzen eta ezin du haginka egin.

Herritarra lau urte hibernatzen pasatzen duen izaki bakarra da naturan, hauteskundeen udaberrian atera, bozkatu, eta berriz bere lurrazpiko galeriara sartzen duzuena. Eta muturra ateratzen duen satorrari egurra! Ez duzue lotsarik. Zuen neurrira egindako "demokrazia" eraiki duzue, eta herritarrok gure botoak baino askoz balio gutxiago dugu zuentzako.



## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +13 | +18 |

Euria egingo du, baina arratsalde-gauean egoera lasaiagoa izango dugu. Ipar-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da.

www.euskalmet.euskadi.net

